

BERTSOLARI EGUNA 1991

**GOIBURU eta IRAOLA
FLORENTINO eta PATXI**

KANTU KONTARI

(

C GIPUZKOAKO ARGITALPEN ETA AGERKARIEN
ELKARTEA (Gipuzkoa Donostia Kutzaren
Kultur Ekintza).

Azala: Joxemari Telleria

Lege Gordailua: S.S. 7-91

Inprimatzaile: Lit. Danona, S. Coop.
Oiartzun (Gipuzkoa)

SARRERA

1968an Uztapideren omenaldiarekin bere ibilbidea hasi zuen egungo BERTSOLARI EGUNEAN, aurten, Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen erabakiz, Patxi Iraola eta Florentino Goiburu bertsolari gipuzkoarrak omentzen dira.

1991ko Urtarrilaren 13an Donostian burutuko den omenaldi ekitaldiarekin, 26 gizaseme izango dira beren lagunek, bertsolari eta bertsozaleek, eskeinitako ohorea jasoko dutenak. Goiburu eta Iraolaren aurretik omendutakoak hauek dira: 08an UZTAPIDE, 09an XALBADOR, 71an LASARTE, 72an MATTIN, 73an BASARRI, 74an BALENTIN ENBEITIA, 75ean ITURRI, 76an LAZKAO-TXIKI, 77an JOXE LIZASO, 78an MITXELENA, 79an JOXE AGIRRE, 80an LAZKANO hautatu zuten eta honek onartu ez, gero ETXAUN IRURIKO izendatua izan zen baina hau hil egin zen eta azkenik txapelketa nagusiaren finalarekin estalia geratu zen, 81an PAULO TXIKIA ETA LOIDISALETXE, 82an MUGARTEGI, 83an XANPUN, 84an GARMENDIA, 85ean EGILEOR, 86an PATXI ETXEBERRIA, 87an AZPILLAGA, 88an BAUTISTA ETA XALBADOR MADARIAGA, 89an LEXOTI eta 90ean JOSE ALBERDI ETA BASILIO PUJANA.

Bertsolari Elkarteak, Bertsolari Egunaren antolakuntza bere esku hartu zuenetik, ahalegin berezi batez eragin dio egun horrek egun batekoa baino oihartzun handiagoa izan dezan, eta 89an eta 90ean bezala, aurten ere liburuxka bat eskura nahi izan dizuegu bertsolaritzaren zale zareten guztioi KUTXAren laguntzaz. Horretaz gainera ekintza bereziak antolatu Jira Idiazabal eta Zaldibian.

Liburuari dagokionean, Patxi Iraola eta Florentino Goiburu ditugu burututako lanaren protagonista nagusiak, beren bizitzako pasarteak eta bertsoak kontatuz. Guzti honekin, zure eskura geratzen da falta zaiona egiteko, irakurri eta ongi derizkiozun kritika eta aportazioak egitea.

Euskal Herriko Bertsolari Elkarte

GOIBURU eta IRAOLA FLORENTINO eta PATXI

Bi **gizon** eta kasu honetan, bi bertsolari.

PATXI IRAOLA, zaldibitarra, Goierri inguruan asko bezala, gazte denboran baserrian lana egina eta ondoren lantegi edo fabrikara pasea. Ibilera hauei buruzko xehetasunak berak adierazten dizkigu liburuan zehar bere hitz jario egoki horrekin, hargatik ez dugu guk alor hau berrituko, ez bait genuke hobeto egingo, nahita ere.

Edozein eratan ere, garbi ikusten da bere bizitza bertsoaren inguruan errotua egon dela beti. Hasi oso gazterik hasi zen, haur bat zela esan genezake eta, Zaldibi inguruan, Telleitxo, Saturdi, e.a. zebiltzan bertsolariei orpoz-orpo jarraitzen zien.

Bertsotarako sena gurasoengandik zetorkion; aita bertsolari ikutu handikoa zuen eta amak, buru onekoa izaki, zenbat bertso zahar ez ote zien kantatu Patxi eta bere senideei! Hortik noski, Iraola sendian bertsoak duen eragina.

Ama buru onekoa zela genion lehentxeago eta harengandik ezer jaso badu Patxik, hori behintzat jaso duela esan behar, izan ere, haur bat besterik ez zenetik bere eskuetan erori diren bertso paper guztiak esateko, buruan dituela diogu goierritarrok.

Bestalde, eta hau ere ahobatez esaten dugu goierritarrok, bertso eskolarik ez zen garaian, Patxi izan dugula jendaurreko lehen saioetan gidari, bertso maisu eta batez ere lagun. Badu aparteko sen bat, jende gaztearen, bertsotan hasi berriaren, inguruan ibili eta garaian garaikoari jarraitzeko, horrela, beti lagun on gertatuko zaigularik.

Bere bertsolari izaera berriz, handia eta sakona da batez ere mahaiko bertsoketari gagozkiolarik. Horrelakoetan kontuz Patxirekin!

Behin, bertsolari mordoska bat kantatzen ari ginala, tartean trago batzu hartuz, norbaitek kantatu zuen ia berdintzen ari ginala. Beste batek, hura behintzat ongi zegoela artean eta hurrengoan zion, norbera konturatzen dela azkena. Patxik honela erantzun zuen:

**Neuri ere hau gertatua zait
batean edo bestetan
lagunarekin joan naizela
bakarrik nintzen ustetan.**

FLORENTINO GOIBURU, gazte denbora artzantzan pasa ondoren, fabrian lan egina dugu eta gaur egun, baserrian eta baserrietik bizi zaigu.

Patxirengatik esaten genituen gauza beretsuak esan beharrean gaude Florentinori buruz, bere bertso zaletasuna dela eta. Idiazabal inguruan ibili ziren bertsolariak ongi asko jarraitu zituen eta nola gainera! Oraindik ere orduko bertsoak gogoan ditu. Adur berezia du behin entzundako bertsoa gogoan hartzeko, esan liteke grabaketarako sistema automatikoa duela. Gaur irratia nahiz telebistaz botatzen direnak ere, zenbat bertso ote du buruan? Hori bai, onak badira bakarrik eta hitzik aldatu gabe kantatuko dizu, zapla!

Orain arteko gain, Florentinok badu garai batean ohizkoagoa zen testulari edo ditxolari izatetik ere puska handi bat. Nork ez du jaso berarengandik era honetako erantzunen bat: Non dezu kotxea? «atzeko alde hortan hortxe'a» edo, etxean al zeunden ordubitan? «nun egongo nitzen ba ordu horitan».

Bertsolari bezala bere izakera egokien adieraziko luketen hitzak «fina eta txukuna» lirateke. Horretan jarri izan du beti arreta berezia eta bestela hona adibide hau: Aitonatxo bat zeukan behin aurrean lehengo oihalezko gerriko edo paxa gerrian eta txapel haundi xamarrarekin prepezioz jantzia; ondoko hau kantatu zion:

**Ikusiz bere txapel
eta gerrikoa
ezagun du ez dala
moda berrikoa.**

Besterik zer esan genezake bi adixkide jator hauetaz? Gauza asko, pilo bat, liburuak idatz genitzake ez bat bakarrik eta hala ere, oso zaila litzateke irakurleari guk ikasi, ikusi eta bizi izan duguna, ezinezko egiten zaigu orri arrunt batean, betiko hizkiz adieraztea.

Hauxe erantsi bukatzeko, zorte onekoak izan garela horrelako bi aintzindari izan ditugulako eta eurei esker, badakigula nolakoak izan behar genukeen plazetan, lagunartean edo ondoren datozen bertsolari gazteagoekin.

Goierriko Bertsolari Taldea

FLORENTINO GOIBURU

Florentino Goiburu, amaren bularretik hasi eta txabola hontan hazitakoa da. Oinez ere bertan ikasiko zuela esaten digu berak. Gero ere hemen bizi izan zan artzai ibilitako urte guztietan, edo artzantzan segitu zuan bitartean, batez ere uda partean.

Lehenengo txabola zahartxeagoa omen zuan. Gero, berak berritu zuan, berak egin bai hargintza, bai teillatu, tximini eta egin beharreko lanak. Txabola hontan ederki ikusten da ateburuko arkuak eta... harriarekin nola egiten zituan.

Florentino Goiburu, bertsotan ez-ezik lan hauetan ere artista da. Urte batzuak badira Urbiatik aldegin zuala, baina oraindik ere txabola hau berria bezela edo, oso ondo dago; nonbait ez zuan gaizki egingo egin zuanean. Bertso bat ere eskaintzen dio:

Zu zinan nere txabola maite
munduratu nintzanetik,
lujo haundirik ez daukazuna
barru eta azaletik.
Senti dudana esan nahi dizut
nere bihotz apaletik:
nahiz egon goiko harkaitz tartean
oso urruti kaletik
neretzat etzan mundu guztian
zu bezelako txaletik.

Jaio, Idiazabalgo herrian eta «Erdikoa» baserrian jaio nintzan, Agustin eta Antoniarengandik 1933. urteko Urriaren 31an. Lau gera senideak: bi emakumezkoak (Maria Luisa eta Pepita) eta bi gizonezkoak (Luis eta ni, Florentino). Neu naiz zaharrena, eta hemen, gure erdian dagoen hau ama degu, eta aitazana hil zala badira hamalau bat urte.

Aita artzaia nuanez, ni ere bere bidean hasi nintzan, artzantzan alegia, Urbiarako bide bazterrak ondo baino hobeto ezagutzeko moduan. Hau ordea, patxadan kontatzekoa da eta ondorengo orrialdetan agertuko det.

Hemen dagoen nere anai hau oso bertsozalea eta bertsotan ere dexente egiten duana da. Loiolako txapelketan hiru igandetean kantatu behar izaten zen; nik ere hartu nuen parte. Jai batean kantatu nuen eta bigarren jairako ondoez edo gaixorik jarri nintzen. Eta nere ordeaz, anai hau bialdu nuen. Nahikoa eta gehiegi egin zuen nere tokian joan eta defenditu zan moduan defentitzea.

Beste egun batean, Igarzabal eta Sarasua etorri ziren gure herrira bertsozara. Bazkalondoan gure anai hau joan ornen zen kafea hartuz edo haien ingurura. Baita bertsozaren batzuk kantatu ere. Neri Igarzabalek esan zidan bertso bat, behintzat, azkeneko bi puntu hauekin bukatu zuela:

Zueri zeñek egin dizute
etortzeko abisoa?
Geuk ere egingo genduan
hemengo pasadizos.

Idiazabal zu ziñan nere
sorterri erabakia,
baztar danetan ez da izango
hemen daukagun pakia,
txiki samarra izatea da
dadukazun aitzakia;
kale, baserri, fabrika, mendi,
hain zerade egokia,
Gipuzkoako gaztik onekak
egiten diran tokia.

Munduan bada jende ospetsu
jakintsu eta azkarrik,

baña bakoitzak bere sorterri
bat izaten du bakarrik;
Idiazabal maitea zaitut,
ezetz esanda alperrik,
herri ederrak asko daduzka
Gipuzkoako Goierrik
baña neretzat ez du beste bat
zu zeran bezin ed errik.

Patxi Iraola nere lagunak, aitazana ere bertsolaria zuan. Beraz, Patxi txiki txikitatik bertso giroan hazitako bertsolaria da. Ni ez naiz hala: nere aitazana ez zan bertsolaria, bertsozalea bai, baina bertsolaria ez. Orduan ez naiz ni txikitatik bertso giroan hazitakoa.

Patxi hau lehengo gerrate kontuekin ere akordatzen da zerbait; ni, berriz, ez. Ez dakit zergatik, baina ez naiz ezer akordatzen. Egia esan, ez akordatzeko hobeak izango ziran orduko kontu asko, geroztik entzun izan degunez.

Zazpi urtera arte ez det kontatzeko ezer askorik. Zazpi urterekin, gogoan dut, nola eraman ninduten Bizkaira lehenengo aldiz; Bizkaiko Laukiniz herrira, Traku baserrira. Han pasatu nuan negu osoa artzantzako lanetan, aitazana eta amarekin.

Ez det uste negu hura motxa izan zenik neretzat. Behin baino gehiagotan galdetu nuala uste det ea berriz Gipuzkoara noiz etorri behar genduan. Kukua hasitakoan etorriko giñala esaten zidaten, eta kuku hori non eta noiz aukituko pasatu nuen negua.

Etortzeko eguna iritsi zanean, gogoratzen naiz, zaldia sokatik nuala, ardien aurretik etorri nintzan. Bost egunetan etortzen giñan: lehenengoan, Lezamaraino, bigarrenengan, Zornotzaraino; hirugarrenean, Kanpazarreraino; laugarrenean, Udanaraino, eta boskarrenean sartzen giñan Idiazabalen.

Idiazabala etorri eta... orduan, zazpi urterekin Komunio Txikia egin behar izaten zan. Ni ere sartu nintzan nere lagunen tartean. Otoitzak eta orazioak ikasi behar. Hala, orazio horiek ikasi eta nere lagunekin, edo nere edadekoekin, batera egin nuan komunio txiki hori. Holako gauzatarako ez bazan, denbora gutxi pasatzen genduan geren herrian. Udazkenean eta udaberrian pixka bat. Negu osoa Bizkaian, eta uda Urbiako mendietan.

Komunio Haundia egiteko garaia etorri zan gero. Hortarako, dotrina dana memoriz ikasi behar izaten zan, zuetako askok jakingo duan bezela. Dotrina hori Urbian ikasi genduan. Arantzazuko prailea jaietan meza ematera etortzen zanean, markatuta jartzen zidan nondik nora ikasi beharrekoa. Eta nik, markatutako hura ikasten nuan. Saiatzen nintzan, behintzat.

Eskolan, berriz, ez naiz asko ibilia. Gure egoera eta ibilerak bestelakoak ziran, erabat. Ibitakoa herriko eskolan, pixka bat. Orduan, gainera, gau-eskola izaten zan: egunez artzantzan edo beste lanen batzutan aritu eta gauean eskolara. Ni eta... beste gehiago ere bai garai hartan. Baina nik ez dakit gaua ez dan ona eskola ikasteko edo... nik ez nuan behintzat gehiegirik ikasi. Gure irabaziak kontatzeko lain bai, hortik aurrera ezer askorik ez.

Bertso giroan, berriz, ez dakit nola sartu nintzan. Gure etxean beti hartu izan da Arantzazuko errebista, eta honek beti ekartzen zituan bertsoak. Gezaltzako aitona Graziano zanarenak gehienbat. Baita besteren batzuenak ere, Errebista berria etortzen zanean, lehendabiziko lana egingo nuen nik bertsorik bazekarren haieri begiratzea. Baldin bazekarren, haiek izango ziren lehendabiziko irakurriko nituanak, eta ikasi ere bai, ahal banuan.

Nik uste berez ekarri behar dela gogoan edo zaletasuna gauza guztietarako. Nik hamaika edo hamabi urte nituan inguru hortan etorri zan Zepai bertsolaria gure herrira. Ezkondu eta bertan jarri zan, taberna batekin, bizi izaten. Oso bertsolari ona zala eta horrelakoak esaten zituzten. Huraxe izan zan nik plazan lehendabizi ikusitako bertsolaria.

Loidisaletxe zanarekin, errezildarrak biak. Kantatu zutela uste det bertso ederrik egun hartan. Kantatzeko grazia ere aparta zuten nola batak hala besteak.

-Nik bazeukat liburu bat eta emango diat. Hik badaukak denbora, ardiak zainduz habilela, ikasteko. Eta udaberrian hemendik joaterako dana ikasita behar dek.

Makina bat begiratu eman nion negu hartan liburu hari. Ardiren batek arbi hostoren batzuk jango zituan soro ixkinaren batean, ni hari begira nengoan bitartean. Bazuan bertso dotorerik Txirritaren liburu hark.

Ez konformatzen ni, ordea, luburukoekin bakarrik. Etxeko nagusiarenak ere entzun nahi izaten nituan, horretarako denbora libre gehiegirik izaten ez genduan arren: nik egun osoan artzantzan ibili behar, batean eta bestean. Hura, berriz, baserriko bere lanetan. Dana iluntzean, ardiak erretiratu ondoren, alkarrekin meriendatzen genduan, gehienetan. Meriendatutakoan behiak jetzi behar eta jezteko denbora horixe aprobetxatzen genduan bertso giroan pasatzeko. Orduan ez zan gaur bezelako makina eta adelanturik: behiak eskuz jetzi behar. Ikulu hartan ez zan makina hotsik, bertsoak bakarrik. Akordatzan naiz hau ere nola esan zidan egun batean:

-Gure aitazana ere horrela jarduten huan: goizean behiak jeztekoan, errezatzen, eta iluntzean behiak jeztekoan, bertsoak kantatzen.

Auskalo nagusi hark zer egiten zuan goizetan; nik, behintzat, lo. Baina iluntzean, behiak jezten hasten zanean, inguruan izango nintzan gehienetan. Gizon hark bertso asko zuan memorian: «halako bertsolariak holakori hau bota omen zioan, eta bestean hala erantzun...». Holako asko zituan hark. Bai bertso zaharrak ere ugari, baina ni ez nintzan horiekin bakarrik konformatu izan; beraren berriak nahi. Horretarako, hura kantatzen hasiko bazan, gehientsuenetan, neuk zirikatatu behar.

Handik aurrera, Zepai zana ikusten nuanean, Jaungoikoa edo horrelako zerbait ote zan pentsatzen nuan. Gure herrian bazan beste bertsolari bat ere: Paskual Telleria izenekoa, Masuka baserrikoa. Gizona ez nolana hikoia eta bertsolaria ere ederra oso. Askotan ikusi izan nuan Zepai zanarekin kantatzen; eta besteren batekin ere bai inoiz.

Halare badakit seguru neu ez nintzala haiekin hasi bertsoak kantatzen. Nik gizon haiei errespeto handia nien, eta haiei entzunda hasi nintzan nere lagunekin zerbait, bertsoak bezelakoak kantatzen.

Gero, hamaseiren bat urte nituala, Hernanira joan giñan ardiekin negua pasatzera, Argindegi baserrira. Hango nagusia bertsozale itsua zan. Ez bertsozalea bakarrik, baita bertsolaria ere. Ederki kantatu izan zituan. Hark laister eman zidan tankera zer gogotakoa nintzan ni ere. Txirritaren liburu bat bazuala eta hala esan zidan egun batean:

Tomas-zan hura, behiak jezten
hasten zanean baldera,
ni ere laister joango nintzan
hura ari zan aldera.
Bertsotan egingo al genduke?
beti hau nere galdera.
Zerbait kantatzen baldin banion
laster hasiko zan bera.
Gu holakoxe eskolaetan
ibilitakoak gera.

Baserri hartan bilatu nuan
Tomas zanaren babesa,
lenaz gainera bultzatu zidan
nere bertsozko amesa;
bertsolari ta umoretsua,
ez zan gizon aldrebesa.

Pena bat daukat: urte askotan
mundu hontan bizi eza;
oso gazterik hil zitzaigun da
Zeruan atseden beza.

Morroi bat ere eduki genduan denboraldi batean gure etxean, bertsolaria. Ez zan Idiazabalgoa. Patxi izenekoa baina «Moxo» deitzen zioten. Harekin ere jardun izan nintzan inoiz, pixka bat. Ez dakit bertsotako arronketan edo hizketakotan, baina segan ona zala esaten zuan. Aritu, askotan aritutakoa hura, ni gaztegoa, neure jardunak ordurako ondo betetakoa nintzan arren, eta nere gaintetik azaltzea gustatzen zitzaion. Izan ere izango zan, hura, ni baino gehixeago segan. Baina sega ez zuan beheko barreneraino ondo ailegatzen eta gero, belarra bildutakoan, sailak, zenbat ebaki zituan kontatzeko moduan geratzen ziran, saileko hainbestean ari balitz bezala.

Nik esaten nion:

-Gero hautsak zabaltzerakoan seinalea izateagatik uzten al dezu hori horrela?

Ez zitzaion batere gustatzen horrelakorik esatea. Baina nik, halare, esan egiten nion.

Gero, guretik joan eta beste baserri batzutan egon zan. Batean edo bestean, Idiazabalen denbora dexente pasatakoa genduan «Moxo» hori.

Dana lana ez zala komeniko eta, gu ere moldatzen giñan kalera tarteka jaisteko. Nora joko eta, jakiña, Zepai zanaren etxera. Hantxe juntatu giñan, egun batean, «Moxo» eta biok. Uztapide ere bertan, enkargu batera etorrita edo.

«Moxo» horrek lehendik ezagutu egiten, sobrare, eta berezko harrokeri punttua baztertu ezinik, han esaten dio Uztapideri, neregatik:

-Hau nik bertsotan erakutsitakoa dek. Neronek erakutsi nioan bertsotan.

Eta Uztapidek, honek bai hura ezagutzen:

-Hirekin ikasi baldin badu, ez dik memori txarra. Maisu on bat izan balu ikasiko zian -erantzun zion.

Halare bakoitzari berea eman beharra dago. Akatsak hartzen genizkion baina bazan bertsolari ere. Behin nik honako puntu hau jarri nion:

«Moxo»k
Bertsotan hasi zaitez
Frantzisko Arregi.
Lehen ere esana naiz
makina bat egi,
zuk pentsatuagatik
nagola zaharregi,
nik kantatuko ditut
nahi badezu segi.

Segan ari giñen batean kantatu nion bertso hau:

Pixka batean begira egon naiz
zure segako plantari,
lan hortan baño nahiago dezu
zerbait edanez kantari,
segari baño gogotsuago
heltzen diozu botari,

zuregatikan jantziko dira
belar zelaia otari.

Gure herrian baziran beste bertsolari batzuk ere. Ni baino bi edo hiru urte zaharxeagoak ziran. Hiru, behintzat, baziran poliki kantatzen zutenak. Zepairen etxean askotan egonak eta berarekin bertsotan sarritan jardunak hirurak ere. Bata Gazteluko Antonio (Goiburu); bestea, Irun-goeneko Joxe Joakin (Izagirre), hirugarrena, berriz, Joxe (Goiburu), Arteaga baserrikoa. Hauek hirurak egiten zuten dexente bertsotan. Kanean inoiz juntatuz gero, laurok jardun gabeko onik ez. Beste horiek nik baino hobeto kantatzen zuten, ez da zaila ere eta. Halare nik, gaztixeagoa izanagatik, edo beharbada horrexegatik, ez nien obeditzen. Kantuan ez, behintzat.

Gero, ordea, maiatzaren aurrenean Urbiara joan behar izaten genduan guk. Maiatzaren aurrenetik Santu Guztinak artekoa han pasatu izan genduan. Bost orduko bidea zan gure etxetik Urbiara, zaldiarekin, inon egon gabe joanda. Jairen batean norbait berandu samar erretiratu eta astelehenean gogo txarrarekin abiatzen bazan, seguru ez zala berehala iritsiko.

Urbia, guretzat, herri txiki bat bezela zen. Bazuan bere eliza, lizarrez babestua, eta ondoan baita fonda edo ostatua ere, inork ezer jan nahi bazuan, edo zernahitara behartu. Eliza horretan jaiero ematen zuten meza Arantzazuko praileek, behetik propio igota. Eta gu, Urbiako artzai gehienak han juntatuko giñan. Danak esanda ere oker haundirik ez garai hartan. Oñati aldekoak ere etorri izan ziran, hor Aloña eta Katabera aldean zeudenak.

Artzaiak beti falta izaten du zerbait: ardia ez bada arkumea, eta eliza aurreko lizardi hura ez zan izaten txarra notziak jakiteko. Bati edo besteari galdetu zer falta zuan eta askotan jakiten zan leku batean edo bestean zebilela. Meza ondoren fondara joan eta arrantxo jakina izaten genduan: salda hartu eta txuri pixka bat edan, tertulian. Bertsotan ere egiten genuen batzutan, hortarako aldarterik egokitzen bazitzaigun. Gero, berriro, bakoitza bere txabolara. Hala zelebratu izan genduan garai hartan jai eguna.

Urbia oso mendi txikia da berez, baina hogeitabost artzai ezagututa nago han. Gaur ez dago bederatzi besterik. Beherakada ederra egin du nere txiki-denboratik hona.

Orain, jakina, gaur dauden artzaiak, bakoitzak, orduan baino ardi gehiago dauzkala, artalde haundiagoak, baina, orduan, gutxi zituana ere haietatik bizitzen zen. Nik esaten dedana, edo esan nahi nukeena, hau da: nire txiki denboran hogeitabost artzai bizi zirala artzantzatik; gaur ez dirala bizi bederatzi besterik, eta danak ez hortatik bakarrik. Nere denboran egin duen beherakada ez zuan lehen egingo hango artzai kopuruak eta hemendik aurrera ere, beste baten akorduan, ez dauka egiterik.

Gauzak horrela, hala okurritu zitzaidan URBIAKO ARTZAIAREN DEIA (1957) izenburutu nuan bertso sorta. Honako hau:

Bertso batzuek jarri nahi ditut
baztarretan zabaltzeko:
gutxi falta da ia ganadu
toki guztiak galtzeko;
pentsamendu hau dago gehiena
mendian pinu sartzeko;
artzai askori esaten die
ardi guztiak saltzeko.

Ez naiz harritzen gaur jende askok
hitz hauetxek esatea:
pinu sartuta dirua dago
hemendik puska batea.
Baina tripa're zerekin bete

kontuak ondo atea.
Lenengo lana ez al da hemen
biziko danak jatea?

Gure Jainkoak behar bezela
gauzak jarriak zituan,
zekialako bizi izateko
zerk falta eiten ziguan.
Tripeak beti behar du zerbait
udaran eta neguan;
aurki ez dakit arkume asko
jendeak jango ote duan.

la bakantzen ari diranak
makinatxo bat artalde;
kanpoan gauza egon behar du,
naiz hemengok egin alde;
bertan dagona galestia da
prezios eitean galde;
baina kanpotik datorrena're
ez da izango debalde.

Ganadurikan ezin eduki,
pinuz tapatuta lurra;
horrengatik gure ardiak
egin dituzte agurrak.
Aurki oirako koltxoak falta,
hauek ez dira gezurrak,
lotan jartzean paga beharko
ederki bizkarrezurrak.

Joan beharra gertako zaigu
fabrika edo kalera,
badakizute nola dan gure
bizimoduen galera.
Gora joatea zaila da baina
jetxiko gerade bera;
Zeruko Jaunak nai duan arte
nunbait biziko al gera!

Gu egondako garaian, sasoi ederreko jendea juntatzen zan han. Udaberrian joan, eta eguraldi txarrak emandakoan ere, ardiak jetzi eta gaztaia egin behar eta (horrek ez bait du barkatzen) egun txarrak pasatuak gera ondo moldatu ezinik, ezertarako gustorik gabe, baina bai, aldiz, bestaldekoak jotzen zuenean, ederrak ere makina bat. Zenbat broma eta umore pasatu genduan... batzutan bertsoan, bestetan musean, era guztitako ziri eta enbidoka. Alkarri adarra jotzen, zer esanik ez. Baziran hortan azkarrak eta tokatu zitzaizgun non eta zeinengandik ikasia.

Mantenua: jan eta edana ekartzera hiru orduko bidean joan behar izaten genduan. Urbiatik erosoan dauden herriak Arabako Arriola eta Gordoia dira. Horietan, ordea, ez zan denda gauza haundirik egoten eta Araiara bajatu izan giñan behin baino gehiagotan. Araia hau beste herri hoietatik nahiko gertu dago.

Horretarako ere bi edo hiru lagun hitzeginda egoten giñan, zein egunetan eta rola. Horrela, alkarrekin kontuak esanez, bideak askoz motzagoak egiten bait zitzaizkigun. Goizean joan, beharrezko enkarguak egin eta «Bene» izeneko jatetxean bazkalduko genduan.

Behin, lau lagunek patxadan bazkaldu eta batek kafea hartu orduko aldegin zigun, laister etorriko zala esanda. Puxka batean zai egon eta halako batean etorri zan, ederki berdinduta etorri ere. Gero, Urbiako bidean abiatu giñanean ziran komeriak! Edariak agintzen zion nondik nora joan, ez oso zuzen horratik! Poliki neurtzen zituan bide ixkinak: batean ixkina batera, bestean bestera. Nere lehengusua ere han zan gurekin, eta lagunaren abelera ikusita hau kantatu zion:

Lagun, kargatu dezu
jornara bat latza,
orain nahi ez dala
egin behar dantza;
batera zabua ta
bestera balantza,
zuri komeni zaizu
bide zabal-antza.

Nere lehengusu hau oso bertsolari txukuna zan. Kantatzen zituanak ondo kantatzen zituan. Behin baino gehiagotan pentsatu izan det Azpeitiko Landeta auzoan jai, hazi eta bizi izan bazan, bertsolari dexentea izango zala hura. Gero ezkondu eta Arabako Galarreta herrian jarri zan bizi izaten. Geroztik bertan segitzen du, artzantzako lanetan. Han ez du bertso giro haundirik edukiko inguruan, baina orain ere irratitik entzuten dituala uste det. Urbian egoten giñanean, hamaika bertso kontu jorratuak gera gu biok. Alkarrekin kantatu ere, dexente aldiz.

Jai batean joan giñan Fondara eta afaltzen jarri bertan. Barruko mahaian, bertako nagusi zaharrarekin, Artxanberri zana ikusi genduan, afaltzen. Guk ez genduan ezagutzen. Egun hartan joana zan Urbiara hurrengo egunean azari harrapatzen hasteko asmotan edo. Baina gurekin zegoan lagun batek, ataundarra berez, Urbian morroi urte asko egonak esan ziguan:

-Nagusi zaharrarekin afaltzen ari dan hori bertsolari ona dek oso. Horixe dek Artxanberri. Oso bertsolari ona.

Guk, berriz, gu baino hoberik han egon behar zuanik ez genduan pentsatzen orduan:

-Afaltzen duanean hona etortzen hada... bion artean, behintzat, defendituko gaituk gu ere.

Hau pentsatu ez-ezik esan ere egingo genion, seguru asko. Afaldu zuanean, ordea, oherako bidea hartu zuan Artxanberri zanak. Kafe bat hartuz gure mahaian jartzeko eskatu genion, etortzeko guregana. Ezetz, nekatuta zegoala eta ohera zihoala. «Gauon pasa» esan eta oherako bidea hartu zuan.

Baina gurekin zegoan ataundar horrek ezagutzen zuan lehendik eta laister joan zitzaion atzetik, «nik ekarriko diat» esanda. Esan eta izan. Esan omen zion:

-Hor badaude bertsolariak zurekin kantatu nahi omen dutenak. Etorri zaitetz pixka batean.

Hala ekarri zuan. Hasi zan kantatzen eta... haik bertsoak! Nere lehengusua Zepairen etxean askotan egona, eta bertsolari pranko ikusia zegoan ordurako. Hala esan zidan:

-Makina bat bertsolari ikusi det nere denboran, baina lau puntu horrek bezain ederki kantatzen dituanik oso gutxi, oraindik.

Halakoxea, izan ere, Artxanberri zana! Egun hartan zahartu egin zala eta antzekoak bota zituan bentsotan, eta guk oraindik gizon gordina zegoala eta horrelakoak. Orduan kantatu zuen honoko hau:

Gazte, guk ere garai batean
sasoi ederra baginun,
baina gaur ia ez zeukeagu
konsuelorikan inun,
lehenago bigun ziranak gogor

ta gogor ziranak bigun;
hara zahartzeak zertarainoko
bentaja ekarri digun!

Bertso ugari kantatu zuan egun hartan. Gureak eta harenak ez zuan alde haundirik aterako! Bakoitzak ahal duana egiten duela pentsatuz konformatu behar izan genduan afalondo hartan.

Garai hartan Urbian juntatzen giñan koadrilaren adierazgarria urte baten Arabako San Bernardon (Narbajatik Gasteiz aldera, mendi ixkina batean dagoen barriada txikia da) bildutako jendearen emana da. San Bernardo egunean, Abuztuak 20ean egiten dira festak. Festa leku ikaragarria, benetan. Lau edo bost lekutan jartzen ziran soinujoleak. Jende asko juntatzeko ohitura zan: Oñati, Arantzazu, Artxabaleta eta, Arabaz kanpo, alde askotako gipuzkoarrak.

Tokatu zan egun batean Urbiatik joandako hamabi lagunek mahai berean bazkaltzea. Lehenago ere ez zan han izango holako koadrilarik Urbiatik joanda, eta geroztik nekezago. Nahiko dantza egin, eguna broma ederrean pasatu eta mendira. Berdintsu igotzen giñan: lagunartean kontu-kontari eta bertso-kantari.

Goien, biharamonetik aurrera laister zetorkigun bezperako jolasak eta alaitasunak ahazteko premia, batzutan lanerako enbarazo egin bait zezakeen. Izan ere, lan asko sortzen zitzaigun, ez beti gainera norberak bakarrik burutzeko modukoak: ardi-mozte, txabolak egitea eta horrelakoak ziranean ere alkarri lagunduz egin izan genituan. Azkenean, trapala edo zanean... bertsolariak. Nola falta gu bertan egonik! Uste baino gehiago, askotan.

Laguntzak, berriz, modu askotakoak eskeini ohi ziran, batzutan laguntza edo enbarazoa zan antzik ematen ez zitzaizen horietakoak ere bai. Halamoduzkoa behar zuen izan behin, bertako artzai baten txabola koxkorra egiten ari nintzala (hargintza lanetan sarritan jarduna naiz) presentatutakoak: Jabearen laguna etorri zan egun batzuk pasatzera Urbiara. Bera ere hargina zala eta lagunduko zidala apur bat. Estimatzekoa zanez, baietz esan nion, bion artean errezago egingo genduala.

Baina hala esan zidan hasi baino lehenago:

-Kantoiak eta... ez, eh! Kantoiak eta antzekoak zuk egin, Florentino. Nik bestela lagunduko dizut, erdian arituko naiz.

-Beno, beno. Berdin dio -erantzun nik.

Handik pixka batera, nere barrengo harridura uxatzearren edo, ezin izan nion pakean utzi:

-Orduan, zu zeu bakarrik ari zeranean egiten dezun txabola edo obrak kantoirik gabekoa beharko du, borobila alegia.

Txabola haren jabeak nahiko parre egin zuan.

Era askotako hargintza lanak egiten nituen. Tximiniak ere bai. Batean garai hartan Urbian artzai zegon Atanaxiori. Ea berria egingo al nion galdetu zidan. Tximinia bazuan, baina gaizki egina eta kerik ezin erten behar bezela. Bere bidetik baino sukaldeko atetik gehiago irteten zitzaion askoz. Eta Atanasio han egoten zan negarrez askotan, motibo haundirik gabe.

Ekartzeko ekarri beharreko materialak eta egingo genduala. Jo eta bota lehengoa eta altxa degu berria. Ni ladrilluak eta jartzen eta Atanasio peontzan; gehienez gelditu egon zan, baina bikote paregabea osatzen genduan. Amaitutakoan bai ederki irteten zala kea. Ez zen hasarre. Handik puxka batera hala esan zidan:

-Gizonak inori inoiz mesederik egin baldin badio, neri egin didazu galanta. Orain Zerua ematen du gure sukaldeak. Ez dakit orain anean nola egon naizen horrela.

Gero, bazkalondoan, bertsotan hasi eta hau kantatu omen nion:

Zure txabolan tximini hura
gaizki egina zan berez,
sukalde hortan gora irten gabe
kea zabaltzen zan errez,
eta berria neuk egin dizut
zeuretzako on beharrez,
edo hobetoago esanda
maitasunaren indarrez,
ke artean ez egotearren
Atanasio negarrez.

Atanasio hau oso famatu eta lagunartekoa zan. Egun batean Arabara bidali genduan. Arabako mendietako larreak erosi behar izaten genituan, ardiak beti Urbian eduki gabe pixka bat alde haietara larratzeko. Urtero egiten zan tratua.

Esanda bezela, jai goiz batean han bidali degu Atanasio egiteko horren peskisan Arriolara. Eta iluntze aldera bueltatu zen umore ederrean. Gu han geunden dozenerdiren bat lagun alkarrekin. Danak erosi zituala, mendia goitik beheraino erosi zuala eginez azaldu zitzaigun. Hura entzutea nahiago genduan, guk ere, traturik egin gabe etorri zala jakitea baino. Bertsoz errezibitu nuan nik:

Dana erosi duala esanez
ari zaigu istiluan,
nonbait dirua eramana du
bildurrik gabe piluan,
hilabete bat pasako balu
Araba hortan triluan,
kopeta ez luke edukiko
daukan moduko briluan.

Garai hartan, artean, leku askotan behintzat, gari, garagar eta horik trillatu egiten ziran, makinarik ez eta bestela. Etxe ondoan hartarako propio preparatutako toki batean abereekin aletzen zuten. Abereen atzetik tresna bat erantsi eta bueltaka ibiltzen ziran. Gari-jotzeko modu horri deitzen zitzaion trillua.

Atsegina zitzaion gure gizon horri Arabaldeko joan-etorria. Ondo baino hobeto ezagutzen zuan hango bidea. Ni ere gustora harekin joatekoa gertatzen nintzanean.

Biaje horietako batean, han herren pixka bat egiten zuan emakume batekin beraldiko kontuak eduki zituan. Ezin aspertuaren tankera eman nion, behintzat. Gehiago jakitea ezinbestekoa neretzat:

-Emakume horrekin, koja horrekin, amistade haundia daukazu zuk.

-Bai, amistade haundia daukat.

-Hori zuretzat ez legoke gaizki -tentatu nuen.

-Ez baina... esango dizut: ardiekin ere suerte txarra eduki det oso. Ardi guztiak herren eta... aspertuta nago herrenekin. Lehen ardiekin horrela, eta berriz andre herrera hartzea ere... ez zait iruditzen -erantzun zidan.

-Haiek herren badauzkazu, hori aurretik jartzean, danak konpasa hobeto eramango dute.

Halare berean jarraitu zuan.

Nik artzantza utzi eta Urbian bizitzeari utzi nionean, hango hargintza lanetan niregana gabe moldatu beharrean aurkitu ziran. Nik behor batzuk baizik ez nituen eta haiek larrean utzi eta jaietako bisitarekin nahikoa izaten zuten. Horretara joan nintzan batean han juntatu giñan Atanasio eta biok. Berak egindako obra erakutsiz harro xamar agertu zitzaidan:

-Zu ziñan lehen hargina, baina orain ni hasi naiz. Begiraiozu pareta horri. Hori ondo dago gero!

-Bai, bai, ondo dago -erantzun nion.

Bazkaltzera joan giñan eta bazkalondoan atera zuen berriro pareta kontu hori, hain zegoen oneritzita... bertsotan gainera. Nik ere kantatu egin behar. Hotzean esatea atrebitu ez nintzanak han aldegin zidan:

Ez zaitetz hasi pareta hori
hoinbestearino famatzen,
urte bat zutik iraun lezake
leno ez bada banatzen;
zuk badakizu gazta egin da
ardiak ondo larratzen,
baina ez zendun asko ikasi
kantoi harriak labratzen.

Hemen nerekin aurkitzen den hau, Jesus Egileor bertsolariaren anaia da. Urbiako Maritxuren txabola ondoan ateratako argazkia. Maritxuren txabola, garai hartan jatetxe bezala famatua zen. Bere senar Eugeniok, bi edo hiru zaldirekin karreatzen zituen ekarri beharrekoak. Eta Maritxuk preparatu eta jendeari eman. Makina bat lan egina zan emakume hura han. Gero ardiak saldu, goiko lanari utzi eta Oñatin taberna bat hartu zuten. Han ere, lan asko egiten dutela usted det. Bere gizona hil eta orain alargun dago Maritxu. Tabernan bere seme eta errainarekin segitzen du. Orain ere ez da geldi egongo hura, lehengoa bada ez behintzat.

Lehen esan dedan Martín hau, haien txabolan egon izan zan bera eta bere lagun batzuekin opor egunetan. Larunbat edo igandea pasatzen ere bai inoiz. Anaia ezezik berau ere bertsolaria da. Biok elkarrekin jardun izan ginan inoiz. Hura bere anaiarekin entrenatuta etortzen zan eta ondo egiten zuen. Ni ere berriz, ahal nuen bezala han jarduten nintzan.

Martin hik ere goiko mendia
ain gogokoa huan
bertsotan ere inoiz jardunak
gu alkarren inguruan
orain hirekin akordatzean
hau sortu zaidak buruan
bion argazki bat ipintzea
hemen gure liburuan.

Donostiara gaztai premiotara ere joan giñan urte batean. Oñatiko alkateak abisatu zigun: ea hara gaztai premiotara joateko gogorik edo premiotarako moduko gaztarik ba al gendukan; biderako taxia jarriko zigutela eta bazkaria ere dohan izango zela; ea preparatzen giñan bi edo hiru lagun. Guk bagendun gure gaztaiak onak ziranaren ustea, guretzat balio zuan, baina Donostiarrentzat... Dana dala, juntatu giñan halamoduzko hiru eta... bai erabaki ere: «Joan egin behar diagu, beti menditzar honetan egon gabe».

Hala joan giñan. Arantzazun sartu taxian eta Donostiara, geren gazta horiekin hiru lagun.

Bazan han gaztaiakin joandakorik: Aralar aldekoak, nafarrak eta toki askotakoak. Bagenduan, Donostia zala eta, jende dotorea ikusteko aukera izango genduan ustea eta esperantza.

Bazkaldu genduan eta gero, gaztai premioak ematen hasi ziranean, halabeharrez, lehendabizikoa neri egokitu zitzaidan. Ez nuan poz txikia hartu hura esan zidatenean. Bertsotan ere aritzen nintzala jakin nonbait sari-emaileek, eta pare bat eskatu zidaten:

Zerbait kantatzeko diozute
bertso bat edo bestian,
ez dakit nola jaso nazuten
ni, hemen, horrenbestian,
lehenengo gazta saria eman
didazute Donostian,
poz haundigorik ez nun hartuko
nere denbora guztian.

Eskerrak Donosti ta hainbeste
gazta-epaile jatorri,
lehen saria ematearren
nik ekarri dedan horri;
urruti samar egonagatik
Urbia edo Aizkorri,
gazta onikan jan nahi duana
Goiburugana etorri.

Egun ederra bota genduan Donostian. Herri txikiagotan ohitutakoak izan gu, baina bai neke haundirik gabe asmatu ere han ibiltzen.

Gu bertakoak ez, ordea, eta berriro han bueltatu giñan Urbiara. Iritsitakoan, zai genduzkan beste lagunak. Poztu nahi izan nituan:

-Urbia bera ez zegok askoz gorago jasotzerik, lehen ere nahiko goian dagolako, baina Urbiako gaztaiaren fama, behinipein, altxa diat, lehen premia eman zidatek eta. Gonbidatu beharko nauzue, horratik!

-Premio ona eman badiate, gu danok gonbidatzeko ere ez hago hain gaizki.

Ez zuten askorik kontutan hartu, neri emandako saria zala eta, handik aurrera zein errez eta ze preziotan saldu ahal izango zituzten beren gaztaiak. Merezi bai, baina ez nien komisorik kobratu.

Bazan garai batean urtero frailei arkume bana eramateko ohitura. «Limosnako arkumea» deitzen zitzaion. Korpus eguna izaten zan hortako seiñalatua. Urbia eta inguruko artzai guztiak han elkartzen giñan. Egun horri buruz 1965ean jarritako bertsoak dira hauek.

Arantzazura eman dira gaur
artzai askoren pausoak
limosnetako harturik danok
arkume bana osoak,
gu bezelaxe etortzen ziran
gure lengo gurasoak;
Korpus egun hau gogoan dala

jartzera noa bertsoak.

Gaur bildu gera bizi geranok
batean eta bestean,
praileak ondo hartu gaituzte
guztiok, nere ustean.
Ohitura honek segitutzen du
auskalo zenbat urtean,
nik desio det: jarrai dezala
artzaiak geran artean.

Etorri gera gipuzkoarrak
baita're Arabakoak,
argazki baten hartu gaituzte
gaur hemen bildutakoak,
gizen askorik ez da egongo,
gehientsuenak flakoak,
ez egun danak izan balira
gaurkoa bezelakoak.

Hamar t'erditan entzuna degu
danok meza nagusia,
zenbat kantore, hizlari t'abar
hor bazan zer ikusia
Hor bazegoen nola ibili
nortzuk adierazia,
Frantziskanoek eliz lanetan
badute beren grazia.

Meza nagusia entzutea
izan degu gogokoa,
prozesioa ere egin da
ikusteko modukoa
baina sermoia gogor samarra
iruditu zait gaurkoa,
bere burua bezela gutxi
maite du lagunurkoa.

Bazkaritako ordua gendun
jarririk ordu batean,
gure Aita Lasa zai genedukan
hor sarrerako atean
mai ederrera hartu gaituzte
barrura eramatean,
jan-edanetik bai opa ere
gutzizko borondatean.

Bazkal aurretik errezatuta
eseritzen gera maian,
lagun-zar danak maitetasunez
alkarri hitzegin naian,
bazkal ondoren ederki asko
jan da edan degun garaian
bertsoak ere kanta ditugu
gure euskera alaian.

Ondorenean erretratoak
danori ateratzea,
kosteak zaigu geren tokitan
behar bezela jartzea,
bati aurrera esaten zigun
besteai, berriz, atzea;
orain badegu ondo atera
geraden esperantzea.

Gaurko eguna pasatu degu
Frantziskanoen tartean,
gure Aita Lasa buru dalarik
artzai danakin batean,
eta azkenik agurtu degu
hitz hauetxek esatean:
«bagoaz eta oraingoz agur
berriz ikusi artean».

Bazkaritako ordua gendun
jarririk ordu batean,
gure Aita Lasa zai genedukan
hor sarrerako atean
mai ederrera hartu gaituzte
barrura eramatean,
jan-edanetik bai opa ere
gutzizko borondatean.

Bazkal aurretik errezatuta
eseritzen gera maian,
lagun-zar danak maitetasunez
alkarri hitzegin naian,
bazkal ondoren ederki asko
jan da edan degun garaian
bertsoak ere kanta ditugu
gure euskera alaian.

Ondorenean erretratoak
danori ateratzea,
kosteak zaigu geren tokitan
behar bezela jartzea,
bati aurrera esaten zigun
besteai, berriz, atzea;
orain badegu ondo atera
geraden esperantzea.

Gaurko eguna pasatu degu
Frantziskanoen tartean,
gure Aita Lasa buru dalarik
artzai danakin batean,
eta azkenik agurtu degu
hitz hauetxek esatean:
«bagoaz eta oraingoz agur
berriz ikusi artean».

Artzaiak asko ari gerade
bakantzen edo urritzen,
lendik oraina zer diferentzi
ez dago samur neurritzen,
geroz gutxigo izateakin
ez naiz batere arritzen:
gaudenak ere Jainkoak daki
bakoitza nola gabiltzen!

Asko zergatik gutxitu geran
hau're esango det garbi:
ia basoak hartu baititu
gara leku ta belardi.
Laister gerala pentsatzen nago
ez arkume ta ez ardi,
Arantzazuko Amabirjiña,
zuk egin zaiguzu argi.

Gaur ez ditugu garai batean
bezin paraje lasaiak,
toki ederrak gorde ditezen
basurde eta azaiak;
oraindik ere gustatzen dira
arkume eta gaztaiak,
ia bestela falta haundirik
ez du egiten artzaiak.

Gauden banakak gaizki gabiltza
baztarrak ezin zaindurik,
bildurgarrizko haize hotzetan
ederki asko zaildurik.
Gaur pena danak aztu zaizkigu
Arantzazura bildurik,
baina denbora gutxi dala hau,
ez daukat beste bildurrik.

Guztion Ama Arantzazun da
hau danok ondo dakigu,
ta berak ere jakin lezake
nola gabiltzan gaizki gu;
lenago zabal ziran tokiak
estutu egin zaizkigu;
bi egunean bizi behar da
badegu naiko kastigu.

Amabirjiña, zure ondoan
bildu gera Arantzazun,
nere esana aintzakotzat
ia hartutzen didazun,
ondo dakigu Zuk lendik nola
artzaiak maite dituzun,
orain munduan gaudenoi ere
ea laguntzen diguzun.

Artzai ibili nintzanean, gure bertso giroa han, Urbian, inguruko artzai bertsolariekikoa izaten zan. Tarteka norabait joaten bagiñan, ba, hura gehiago, bainan ez zan hau askotan izaten. Gure artean, batzuk besteak baino trebeagoak izan arren, alkar ondotoxo ezagutzen genduan eta ez genduan asko ikasteko aukerarik izaten.

Onak, bertsolari tajuzkoenak, behean zeuden, behean zebiltzan. Hemen bai entzuteko benetako aukerak.

Ahal nuan, edo genduan guztitan, ez bait nintzan bakarrik ibiltzen, seguru giñan bertsolarien aldamenean. Bertso festa non, gu han.

Orduan puri-purian zebiltzan Uztapide eta Basarri, Lasarte eta Lazkao-Txiki, eta Lizaso, eta beste zenbait. Ikasteko modukoak kantatzen zituzten haiek, eta sustraiak ernetzeko bikainak gertatzen zitzaizkiguan gurí. Entzutea besterik ez zegoan Lasarte eta Lazkao-Txikik Idiazabalgo jaietan botatakoak. San Blasetan dira hango jaiak, San Blasak, berriz, neguan. Hotza ere galanta, beraz, askotan, haizea indarrean eta kioskoan bertsotan aritzen oso giro ez. Lasarte txaketaren botoiak eta ondo lotuta aritu zan. Lazkao-Txikik, halakoa izaki, Lasarteren galtzak haizearekin puztuta ziralako zegoela Lasarte hainbesteraino hoztuta, bota zion. Eta Lasartek:

Oraintxe ere kantatu dezu
zuk bertso kuriooa,
beti bezela etorri zera
hegazti peligrosoa;
gorputz txikia izanagatik
mingaina ez dezu gozoa;
nere galtzekin egin liteke
zuretzat traje osoa.

Horrela ari zirala, hara geroxeago Lazkao-Txikik non esaten dion bi konpuesto klase beharko lituzketela: bata hazi eta bestea gizentzeko. Lasartek erantzun:

Lazkao Txiki, ez dezu bota
zuk oso bertso tristia,
izanez ere nondinaitikan
ertetzen zaizu txistia;
zaila izango da ni gizentzea
eta zaila zu haztia,
guk egingo deguna hau da
ez bat eta ez bestia.

Horrelakoak entzutean, guk gozatu egiten genuen, eta ikasteko bidean jarri ere bai.

Gora-behera hauek aittatzean, Joxe Agirre eta Lazkao-Txiki etorri ziran eguna datorkit burura. Guk ere, lehenago esan det, zerbait entzungo bagenduan, haien ondora arrimatu behar eta behin bertaratuz gero, konpromisoa. Lazkao-Txiki hasi zitzaidan kantatzeko eta kantatzeko. Ez nuan gogo haundirik edukiko, sobrare, eta haiekin hasteko nik ez nenkiala esan nion. Bertsoz animatu nahi izan ninduan:

Joan deneko aspaldi hontan
ondo ezagutzen haut nik,
ezetz alperrik esango didak,
bertso lanean badakik;
hiruron arten egin gentzakek
egin ezin deguna bik;
kantatu itzak bat edo beste
ajolik ez baldin badik.

Eta erantzutea erabaki nuan:

Nere barrena ez diat jotzen
bertso txukunaren kabi,
nahiago nitek, neuk, jardutea
Joxe Agirre eta hi.
Lazkao-Txiki, jakin nahi badek
esan behar diat garbi:
hirugarrena txarrakin baino
hobeak dituk onak bi.

Artzantza nola eta zergatik utzi nuen adierazi nahi det ondorengo bertso hauen bidez.

Lizar ta pago belardi edo,
han eta hemen harkaitza,
toki hauetan izan zan nere
Urbia aldeko artzantza.
Ogi bidea izaten nuan
artalde honen emaitza,
eta ez zegon saltzeko beti
udara izan balitza.
Udaizken da negu bildurrez
aldatu nuan bizitza.

Denbora gutxiz hartu ziguten
gauzak hainbeste mudantza
eta soinuak nola jo, gero
hala egin behar dantza.
Galdu zan nere barren hontako
itxaropen esperantza;
etorkizuna ikusten nuan
gogorra edo latz-antza
eta orduan utzi nituan
Urbia eta artzantza.

Bazter batzuak piñu sartuta
besteak zulatzen hasi,
lehen eder ziran paraje asko
jarri zitzaigun itxusi:
goarda eta beste gehiagok
ez ginuzten nahi ikusi.
Hala aspertu nintzan garaian
artalde honen nagusi,
danak Frantzira saldu nituan
beren ahari ta guzi.

Ardiak saldu ta sartu nintzan
fabrika koxkor batean,
han nekatu bat eman ziguten
nahi zuten hainbat urtean;
gero lan gabe utzi gintuzten
mesede edo kaltean,

baserritxo bat dadukat orain
Idiazabalgo partean,
nunbait ibili beharra dago
bizi geran bitartean.

Ez gera, halare, beti horrela izan. Bertsolariak hemen eta zirikatzaileak han, pixkana-pixkana ni ere plazaratzen hasi nintzan. Idiazabalen, bertan, eta inguruko zenbait herritan. Inguruan txapelketak antolatzen hasi ziranean, berriz, hara presentatzen giñan. Hala ezagutu nuen, nik, Patxi Iraola, Gabiriko txapelketan, bertsotan alegia, bestela lehenagotik ezagutzen bait nuen. Han egin genduan aurrenekoz alkarrekin bertsotan eta lehen saria, txapela, berarentzat izan zan, hain zuzen. Saio bikaina iruditu zitzaidan Patxik egin zuena, neri bigarrena eman zidaten. Sei bertsolari giñan.

Txapelketak laster ugaritu zitzaizkigun: Loiola irratikoak, Zepai saria, Idiazabalen, Beasainen; Ordizian, eta beste zenbait tokitan. Danetara ez det esango baina askotara joan nintzala bai. Patxi ere han izaten zan. Txapela jasotzea ere tokatu zitzaidan inoiz. Ez nahi hainbestetan, bainan... Nik lehenengo aldiz parte Loiolan hartu nuan txapelketan.

Gehienbat, gu, Goierriko bertsolariok, hasera hartan behintzat, Goierri inguruan ibiltzen giñan.

Zepai sarian, aurreneko urtean izan ezik, handik aurrera jokatu zirenetan, behin irabazten zuenak ez zuen berriz irteterik izaten. Lege hori zeukaten jarria.

Txapelketan eta inoiz jarri diguten puntu batzuk dira hemendik aurrera datozen hauek:

Luzio Gabiria zanak, fabrikan hamabi ordu lanean nenbillela, Zumarragako Galeperran honoko puntu hau jarri zidan:

Ardiak saldu eta
fabrikara joan...

Nik Baita lan egin ere
behar dan tajuan;
hor aritutzen gera
ordu sail majuan,
aberastu bildur gabe
soldata bajuan.

Puntua: Belarra ondu al da
Idiazabal hortan?

Ebaki egin ditut
ontzeko asmotan
euria egunero,
eguzkia lotan;
komeri pranko bada
baserri zarrotan.

Kuriosidade pixka bat sortzen da, bada, geure inguruan, beti zelebrequeriren bat asmatuko ote degun edo. Jendeari gu zirikatzea gustatzen nonbait eta... puntu hau Arriarango Julianek jarria da:

Artaldean zertako
dauzkak hiru ahari?

Erantzuna: Botatzeagatikan
bero dagonari.
Lehenoz ez bahekian

enteratu hari;
oso tontoa ez danak
jakiten dik hori. (1)

(1) Beasainen, Julian Albisuri.

Aurrera samar bota nahi ere bai gu, batzutan:

Elizak esaten dute
badula kontua,

Erantzuna:

Bertan eiten da otoitza,
baita're kantua,
gauza bat dago nere
burutan sartua
eleizan jende dana
ez dabil santua. (2)

Nahiz eta zenbaitek barrena ukitu...

Kartzela egina da
gizonarentzako.

neurea eman...

Baina Florentinori
gustatzen eitzako,
sentimenduan nago
argal eta flako
kartzelara jendea
joaten dalako. (3)

edo

Gure burruka ez da
izango merkea...

eta nik:

beti hortan gabiltza
hori da merkea,
modu hontan ibiltzen
aspertuko gea,
badegula uste det
nahikoa nekea. (4)

(2) Idiazabalen, 71an.

(3) Idiazabalen, 74an.

(4) Ordizian, 72an.

Gogoratzen naiz Zepai sarian, zan, 74ean, Patxik irabazi zuana, gainera. Dotore aritu zan orduan Iraola.

Puntua:

Gosearen negarra
mundu zabalean,

Patxik:

zail da sinisten dala

kristauen legean:
asko saiatzen dira
bakoitza berean,
mixerian daudenak
erruki gabeen.

Idiazabalgo Zepai sari batean gaia eman ziguten bizi den bertsolari bat aukeratzeko. Zein bertsolari eta zergatik? Patxik Uztapide aukeratu zuen:

Bertsolari bat aukeratuaz
egin nahi nuke aitorra
lehendabiziko unetik bera
neregan haxe datorra:
Uztapide da, nere partetik,
aukeratzeko bat, horra,
berezkotasun haundia duen
hain bertsolari jatorra.

Banun gogoia ta gizon horri
noizbait kantatu behar nion,
bere bertsuak entzunda nago
ni egun bat baino gehion,
harritzen nintzen harri bertsoa
nola etortzen zitzaion,
Euskal Herriak ez daki oraindik
horreri zenbait zor dion.

Neuk ere hantxe bota nituen neretzat oso gogoko dudan bertsolari bati buruz: Lasarteri, hain zuzen. Haieitako bat, bederen, oso ezaguna egin da, bertsoa zanagatik baino gehiago bere inguruan sortu diran iskanbilagatik. Hara nereak:

Bertsotan onena zein?,
galdetzen didate,
bertsolariak onak
gaur asko zerate,
nik ez det iñor ere
bajatuko bat'e,
baina bat jartzekoan
sailetik aparte,
neretzat ederrena
Manuel Lasarte.

Leitzan jaio ta Orion
bizi dana herriz,
hoberentzat jotzen det
rimaz eta neurriz;
kantatzen aho sapai
eztitsua, berriz,
zein ez du txoratutzen
bere bertso berriz?
Ez dakit halakorik
sortuko dan berriz.

Pototzat jo zutela edo ez zutela izan zen eztabaida pranko, esan ere egin zuten txapela Patxiri eman izanaren inbidiaz utzi mola bertsoak kantatzeari. Ez da horrelakorik.

Hainbestetan aipatu det... hauxe da Zepai zanaren etxea, hementxe bizi izan zan ezkondu eta hil arteko urte guztitan. Etxe hontan zuan bere taberna eta bizitokia. Oraindik ere bertan segitzen dute bere andre Agustina, seme eta sendiak. Gaur egun ere, Zepai jatetxea sona haundikoa da. Makina bat aldiz pozik etorriak gera, gu ere, etxe hontara. Agustina, Zepai zanaren alarguna, sukaldaritzan gutxi izaten diren modukoa da, janari goxo pranko jarritakoa. Oraindik ere hortantxe jarraitzen du. Zepai zana mostradorean egoten zan, mostradore lanetan aritzen zan, sartzen zanak zer nahi hura serbitzeko.

Gu joaten giñanean, hizketalditxo bat egin, haren ateraldiak entzun, edo bertsoren bat ere bai inoiz, eta horrela igaroko genduan hango denbora.

Bazuan ateraldi jatorrik, Zepai zanak. Batzuk jendeak ondo ezagutzen ditu, besteak, berriz, apenas. Ez zuen aitzaki haundiren beharrik hortarako. Izena Akelino zuan. Behin, sartu nintzan eta:

-Akelino, emaidazu «faria».

-Zenbat behar dituzu: bakarra ala paria?

-Ez det egin bi erretzeko moduko afaria.

Ez dakit beti, baina batzutan txerriren bat ere gizontzen zuan, Zepaik, tabernan sobratzen ziran janondarrakin. Etxetik aparte samar, erreka ixkina batean hazten zuen. Txerria gobernatzen ari zen batean agertu zaio baten bat, paseatuz zihoala, eta Zepai berean ikusirik han non galdetzen dion:

-Ze ari zera, Zepai, gobernuan?

-Bai, estaduak hala agintzen du eta -erantzun zion.

Apopiloak ere eduki izan zituan. Askorik ez beharbada, baina batzuek bai. Haietako batekin joan da mendira, ehizera. Zepai zanak bokadilloa eraman zuen eta besteak ez, nonbait. Mendian ibilaldia egin ondoren, bokadilloa erditik ebaki eta apopiloari eskaini zion. Ezetz, berak jateko, ez zeukala beharrik. Zepaik, emateko zegoalako edo, bigarrengo aldiz askoz gogorrago eskaini dio, hartu eta jateko aginduz, berak erdiarekin nahikoa zuela esanez. Gero zioen:

-Etxean nere andreak agintzen dik; fabrikan, berriz, enkargatuak, eta mendian hik agintzez gero Zepaik non agindu behar dik?

Tabernara, afaltzera ez-ezik, kuriosidadez ere jende asko sartu ohi zan. Gu han giñan batean, azaldu zan, bere ezagun edo lagun bat, zerbait hartu aitzikian utzi kotxea kamino ertzean eta. Elkar agurtu bezain laster, gizonak bere gogoa agertu zion Zepairi:

-Kotxean daukat nere familia, eta kotxe ondora joanda bertsoa kantatuko al zenduke?

Lehenengo esanean ez det uste ez baiezkorik ez ezezkorik esango zionik. Abiatzerakoan, ordean, lagun horrek berriro ea kotxe ondora joanda bertso bat kantatuko al zuan. Oraingoan, irten mostradore barrundik, eta bere txapel haundiarekin hor dijoa kanpora, eta gu bere atzetik. Eskatu bazion eskatu, entzun behar izan zuan lagun hark:

Bertso bat nola kantatzen dedan
nahi al dezute jakin?
Ni beti ondo konpondutzen naiz
honelako gizonakin,
berau ez al zait hasarretuko
nik botatzen dedanakin?

Jito konpletoa hemen dijoa
hau bere fameli danakin

Beregandik entzundako bertsoengatik nik ere eskeini nahi nizkioke batzuk:

Errezilen dan Zepai baserri
hartan jaio ta hazia,
gero ezkondu ta Idiazabalen
tabernerotan hasia.
Bertsotan ere bazenduan, zuk,
gutxik daukagun grazia.
Etorri hona, buruz azkarra,
eta kantore bizia,
guk nahi baino lehen buka zitzaizun
lur gain hortako bizia

Zu bertsolari heldu bat ziñan
gu geunden garaian gazte,
ta alkarrekin sarri egonak
nola igande ta aste;
azken arnasa eman zenduan,
asko ez gendula uste.
Nik orain hemen jarriagatik
bertsoren bat edo beste,
barka, ez daukat eskertutzerik
merezi dezun hainbeste.

Gaitzaren mende sentituztean
gure Akelino zana,
entzun genduan ondoez edo
medikutan zenbiltzana,
gero kanpaiak jo zituzten da,
jakin nunean hil zana,
sinistu gero tristurapean
triste gelditu nintzana,
hainbestearaino maite bait nuan
gure maisua izana.

Gure maisu haundi bat ziñan,
esanda ez zait ardurik,
ez zait damutu zure ondoan
pasatutako ordurik.
Behin ere ez zan hustutzen zure
bertso almazen barrurik;
guk askorikan ikasi eza
zuk ez daukazu errurik,
Jaunak Zeruan gorde zaitzala
baldin badago zerurik.

Ordiziko saio batean, «Baserria» gaia jarrita, honela aritu nintzan:

Gu baserrian jaio giñaden
ta baserrian gabiltza,

bururatutako gaian bertan
egin nahi nuke hitza;
lana egiñez toki danetan
kristauaren bizitza,
baña txarrena juzgatuzten det,
lurrean nekazaritza.

Gaur baserrian ez da hartutzen
behar litzakean sosik,
guretzat ez da agiri orain
etorkizun apraposik,
senti dedana garbi botatzen
bate're ez daukak lotsik:
gaur baserrian ez du jendiak
lana egiteko pozik.

Baseri lana nolakoa dan
egongo zera jakinda:
gauetz berandu lanari utzi
goizean goiz ekinda.
Nik'e kalean bizi nahi nuke
baserritik aldeginda;
alper guztiak jan dezatela
bakoitzak berak eginda. (1)

(1) Ordizian, 1971an.

Oraindik orain, berriro, baserriko bizimodua nola zan kantatzeko gaia jarri zidaten:

Txekor da behien salneurri hoiak
jeisten bera ta berago,
esnea, berriz, jarri da ia
ura baño merkeago;
baserri lanak zerbait gehiago
ordaindu behar ez bado,
lehen pobre dana aberasteko
bildur haundirik ez dago.

Albiste txarra etortzen zaigu
nekazarien tartera,
gauza gaizkitzen joango dala
hemen urtetik urtera;
nahi izanagatik ezin gintezke
oporretara atera,
gero, aizkenean hartu beharko
ditugu denak batera.

Jai ta aste lana, behiak jetzi
edo jatenak ekarri,
artajorra ta belar igartzen
hor gabiltz estu ta larri;
inork hobeto jakin nahi badu
baserri bateko berri,
han erakutsiko diot eta
nere etxera etorri. (2)

(2) Lazkaon 1990ean.

Esatea ez dakit ondo dagoen baina neu ere makina bat bertso botea naiz nere denboran. Lagun artean, herritako plazetan eta baita txapelketetan ere. Isilalditxo bat egin ondoren, berriro ere zerbait kantatzen hasi nintzan. «Fernando Amezketarra» izeneko sari bat sortu zelako edo hobeto esan, Euskadi irratiak jarri zuelako. Intxausti, Etxezarreta eta hirurok kantatu genduan herri arteko txapelketa hartan. Herri askok parte hartu zuten.

Lehenengo saioa Asteasun egin genduan, Asteasuren aurka. Bigarrena Durangoko lurretan, hangoen aurka. Hirugarrena Seguran, Errezilen aurka. Laugarrena Zarautzen, Zarauzkoen aurka eta boskarrengoan finala Tolosan genduan Zestuarekin. Eta denetan irabaztea tokatu zitzaigun, halabeharrez. Hala, berriz ere kantatzeko gogoia sortu zitzaigun, edo animo pixka bat eman zigun. Eta geroztik tarteka jarduten gera zerbait.

Lehen eta orain horixe izan ohi da gure festa nagusia. Nora joan han bertsoak entzun eta gozatzea. Ezer gutxi gaur egun gazteak dauzkaten dibertitzeko gauza guztiekin konparatzeko. Halare ez dirudi oso pozik dabilzanik. Halakoa jarri zidaten behin gaia: «Gaurko gazteak jaietan aspertu egiten dira». Bertso hauekin erantzun nuen:

Pena ematen du alde batera
hori entzuten hasteak,
gaurko munduan sortu zaizkigu
izugarrizko nasteak;
jaitan aspertu eiten dirala
gaur eguneko gazteak,
hoientzat berdin izango dira
jaiegun eta asteak.

Anaiarrebak fia zaitetze
nere gaurko esanean,
ez da gauzonik umorerikan
bate're ez izanean;
gaurko gazteak jaitan aspertu
eiten dira aidanean,
hoiek festetan aspertzen dira
eta gu, berriz, lanean.

Hau esan gabe gai hontatikan
ez nazute agurtuko,
zenbait guraso negar malkotan
ote dago noiz urtuko?
Gaurko gazteak bizio txarrak
dauzkate beren gertuko,
gu bezela hazi izan balira
ez ziraden aspertuko. (1)

(1) 1985ean, «Fernando Amezketarra» saria.

Behar bada gu bezela haztea ez litzaieke asko komeniko, garai bakoitzak bere egoera du eta gurea halakoa izan zan. Gero norberaren joerak ere zerbait esan nahiko du. lurretan, Bizkaiko Fernando Amezketarra sarian genbiltzala, lotsari hiru bertso kantatzeko esn zidaten. Honoko hauetxek dira kantatutakoak:

Beraz lotsari hiru bat bertso
gizon honek esanikan,
zer zan ere ez nuan jakingo
neonek ez izanikan;
lotsarengatik nik ez det egin
egin behar zan lanikan,
anai arreboak ez gero pentsa
gauza ederra danikan.

Lotsa aldetik nere denboran
izan det hainbat serbitzo,
beti ibili naiz lotsati eta
mundu hontan txintxo-txintxo
gaur egunean baztar aldera
ez al daukagu utzitxo?
Nik pentsatzen det askok dutela
gaur, hemen, lotsa gutxitxo.

Lotsa aldetik nere denboran
ni ez naiz ibili flako,
Jaun Zerukoak behar hainbeste
eman zidan neretzako.
Munduan ez dirade izango
beste bi ni bezelako:
ezkondu ere ez nintzan egin
lotsatia nintzelako. (1)

(1) 1985ean, «Fernando Amezketarra» saria.

«Zu lo zaudela kukuan jo du
ia makiña bat aldiz»

Hitz hauekin bertsoa bukatzeko esan zidaten.

Hitz egitean gustatutzen zait
gezurrikan gabe egiz,
lehen ere inoiz esan ditut ta
gaur esango dizut berriz:
ikusten zaitut lan egin gabe,
gutziz lasaitasun haundiz,
zu lo zaudela kukuan jo du
ia makina bat aldiz. (2)

Beste batean moskorrari kantatzeko

Moskortzea da gizonarentzat
oso gauza itxusia,
tabernarako patrikarean
sortzen du asko-gutxia,
beste aldetik ez du betetzen
dotrinan erakutsia,
ta azkenean inpernurako
betikotasun guzia. (2)

Bertso kontuan jarraituz, nik lehenagoko era nahiago det, gai librean, alegia. Ofizioka eta oraingo postura honetan baino. Baina gaurkotasunak hala eskatuko du, beharbada eta ez daukat zer esanik. Ofizioka ere moldatzen naiz. Ez da inor egongo, inon, guk aina ofizio probatu duenik.

(2) Loiolan, 1971an.

Behin, Igarzabal gizona eta ni andrea jarri gintuzten. Igarzabalek nerekin aspertuta zegoela kantatu zidan, eta hemen dagoen bertso hau kantatu omen nion:

Ez dezu zertan egon
andreakin kejan,
zuk eiten dezuna, nik
egindakoa jan.
Juergarako pronto
lanetio bajan,
hola segiko dezu
sartu arte kajan.

Hurrengoan herriko bikarioa nintzala jarri zidaten gaia, eta nik:

Ni parrokotzan jarri nintzan da,
hortan daramat bizitza,
egun batzutan sermoi egiten
egin izandu naiz mintza.
Ez pentsa, gero, samurra danik
parrokoaren bizitza,
kristauak, baldin, elizatikan
joan nahian badabiltza.

Jaun Zerukoak parroko jarri,
parroko edo bikario;
eleiz barruan hor egoten naiz
sarritan otoitz-jario,
ta zuek ere, bide horrerri
danok segitu serio:
mundu hontako txorakeriak
geroko ez du balio. (3)

(3) Idiazabalen, 1971an.

Aurtengo San Migeletan ere bertsoan giñan, Altzagan, hain zuzen. Patxi eta biori gai hau jarri ziguten: ni hankako minez eta hura buruko minez medikuaren egongelan juntatu ginela. Eta horrela aritu giñan:

Patxik:

Ajea ta oinaza
nola zahartu geran,
nik goian daukat mina
eta honek beheran,
eta gu sendatzeko
nahi genduken eran
ez dakit medikurik

egongo ote dan.

Nik: Hankako minez nabil
gaizki edo jota,
bart ere ez det oso
gau ederra bota;
ezkerrean reuma det,
eskubian «gota»,
medikuagana nator
herrenka nagota.

Patxik: Pentsatzen egona naiz
inoiz odol hotzen
ikuste'ez dan makilla
ari dala jotzen;
batean buruan da
bestean soinkutzen
lehen pixka't eman zuna
ari zaigu kentzen.

Nik: Ezkerrean sor zitzaidan
reuma aurrena,
ta eskubian «gota»
azaldu hurrena,
botika ona ez bada
mediku horrena,
nik izango det pixka
bateko herrena.

Patxik: Esplikatu du bere
asuntu grabea,
Goiburu hortan beti
izan da noblea;
hankan hainbat aje badu
bestea ez hobea,
badauka honek zerbait
gotarik gabea.

Nik: Zer esango ote diot
handia esan do ta,
lagunak geralako
ez zaio inporta;
ez du aintzakotzat hartzen
Goibururen «gota»,
berak tantorik ez du
aspaldian bota.

Patxik: Ari zerade baina
nago antzemanan:
guk behar genituzke
mediku on bana.
Hankako minez dator
sikiatragana,
baina beretzat ere
badaukazu lana.

Nik: Nere antzean burua
ez daukazu iaio,
ille batzuak joan da
besterik ez jaio;
medikuak egin arren
nahi hainbeste saio,
buru hori ondo jartzen
kosta behar zaio. (1)

Mendizabal eta biorentzat, berriz, honokoa izan zen gaia: «Estadistikek diotenez, gero eta haur gutxiago jaiotzen ornen da. Hori dela eta herri hontako bi pertsona ekarri ditugu arazoa konpontzearen: Goiburu, herriko apaiza eta Mendizabal, herriko ama gazte bat».

(1) 1990 ean.

Nik: Zerbait esaten hasi gaitzen
al bada aurpegi alaiz,
zu, ama gazte jarri zaituzte
ta ni jarri naute apaiz,
gaur ez zaizkigu haurrak sortutzen
lehen bezin sarri edo maiz;
oraingo martxan, bataioetan
ni gutxi nekatuko naiz.

Mendizabalek: Estadistikek esaten dute
oso itxura garbian
haur gutxiago ikusten dala
kalean eta mendian,
kopuru hori behera jeistea
normala degu, agian:
apaizak ere disimuluan
bait dabilta aspaldian.

Nik: Fede pixka bat zabaltzen beti
izan naiz alegindua,
gauzak horrela ikusirikan
nago nahiko samindua;
jendea ez zan hola egongo
haurretatik arindua
behar bezela beteko balitz
seigarrengo agindua.

Mendizabalek: Pulpitotikan saiatzen zera
zere alegin guztian,
Euskal Herria arkitutzen da
krisialdi berezian;
lehenaz gainera jarriko gera
haur txikien eskasian,
elizan baino jende gehiago
sartzen bait da farmazian.

Nik: Hainbat maitemindu ikusirikan
gaur esate baterako,

ez dakit nola frutu gehiago
ez diraden aterako;
orain gazteak aurrerratuak,
hoik ez daude atzerako,
biberioa ere erosten dute
haurrak enkargatzerako

Mendizabalek:

Aintzakotzako hartu beharko
apaiz jaun honen ordenak,
baina pentsatu ez zeratela
zuek'e alaja zuzenak,
«sida» edota gaitz txarrekoak
izan arren ondorenak
zuek zerate biberoi gabe
saiatutzen zaretenak.

Nik:

Apaiz jaun bati ez zaiozula
eman arrazoi zakarrik,
Jesukristoren ordeko bati
ez zaio egiten parrik,
gure moduan bizi den batek
errezatuaz bakarrik,
ez al dakizu ez dadukana
biberoiaren beharrik? (1)

(1) 1990 ean.

Zenbat aldiz jarri nauten nere lagun Eusebiorekin! Gai xelebrea bagenduan behin: ni zurrutero samarra eta xurrutak eraginda etxean sartzen naizelakoan Igarzabalen konbentuan sartu naiz. Konbentuko praile nagusia Igarzabal:

Nik:

Arratsaldean ibilia naiz
kalealdetik buelta,
tragoxka batzuk egiteko're
hortxe hartu nuen beta.
Oh, Igartzabal, zurekin orain
egin beharra hizketa,
zure konbentun sartu naiz nere
etxea zala usteta.

Igarzabalek:

Ikusitzen det nola zauden zu
ia pixka bat erana,
eta zurekin zer egin orain?,
neri jartzen nazu lana;
baina esango dizut golpetik
burura sortu zaidana:
bertan gelditu nahi badezu, hemen
bada zutzako sotana.

Nik:

Beajundaizula hain ateraldi
txarra ez dezu atera;
Goiburu pozik bizi liteke
fraile hoiekin batera;
jan-edanetik ipintzen badu
gorputzarentzat aukera,
etorriko naiz, baina pentsatu

ni ez nihoa eskera.

Igarzabalek: Etorri zera ta eman behar
nolabait zuri arpegi,
luzatu gabe esango dizut
nik golpetikan bi egi,
konforme hortan ez bazaude hemen
zukin ezin leike segi:
alper batzuek izatekotan
lehen'e bai gaude gehiegi.

Nik: Alper gehiegi ziran lenago,
hau pentsatzen nuan aisa,
ni ere ez al naiz hor mantenduko
beste alper hoiengisa?
Ez da gustatzen ez zaitelako
komentua ta eliza,
meza ematen ikasten badet
nik hustuko det kaliza.

Igarzabalek: Lehen'e esan dizut eta berriro
berdina dator atzera,
beraz zerori jarri nahi dezu
hemen nagusi antzera;
barkatu zazu baina mezetan
hasteko zarregi zera,
ez gera biok konponduko ta
joan zintezke etxera. (2)

Baina sotana erantzi zuen orduko adiskidetu giñan, eta berriro lehenago bezain lagunak gera.

(2) Loiolako Herri irratiaaren sarian, 1972an.

Sarritan topo egin izan degu Patxik eta biok bertsotan. Lazkaoko saio batean, hura aberatsa eta ni pobrea jarri gintuzten, eta guk bertsotan ekin.

Patxik: Mundu honetan pasatu ditut
berrogeitamabost urte,
nahiko dirua badadukat ta
osasunez ere fuerte,
alde hortatik ez du edozeinek
nik dean hainbeste suerte,
zuek ere aberastu zintezkete
saiatutzen bazerate.

Nik: Ni abarketan egina nago
nik ez dakit zenbat gastu,
Patxi zahar honek ez du oraindik
nik hainbat lokatza nastu;
nik orain esaten dizudana
ai, ez zaizuela ahaztu:

langile finik munduan ez da
oraindikan aberastu.

Patxik: Zuk abarketan egina dezu
horrenbesteko gastua,
behor da ardi edo berdin behi,
lokatza asko nastua.
Nik ahal dedana ongi kobratu,
ostu bada non ostua,
uste al dezu txintxo ibilita
nagola aberastua?

Nik: Abarkarekin eginik nago
hainbat neke eta korri,
sarri askotan izarditurik
kolore guziak gorri.
Kaso egin behar hainbeste behi
eta hainbeste behorri,
gutxigo eginda Patxi zaharra,
aberastu haiz herorri.

Patxik: Ni nolakoa izandu naizen
garbi esan dizut aurrez,
horretarako suerteduna
munduan behar du berez,
mundu hontako joan etorriak
manejatzen ditut errez,
dozenerdibat guardespaldakin
sekuestratzeko bildurrez.

Nik: Gure Patxi hau bizi izan da
beti diruan egarrik,
etxean dauzkan gehienak dira
bide txarretik ekarrik;
sekuestratzeko bildurrez dago
ez dago esan beharrik,
eramaten bazaituzte ere
ez det egingo negarrik. (1)

(1) Lazkaon, 1988an.

Lehenago esan dedan bezala, gaurko bertsolaritzan saio asko gaia jarrita egiten dira, bestelako jardunak ere badirelarik, eta ez gutxi. Horrela, han hemenka bertsolari askorekin tokatu naiz. Loiolan, behintzat, egun batean Eusebio Igarzabal gabiriarrarekin. Orduko gaia honoko hau genduan:

«Goiburu, kalean bertsotan ari zeran bertsolaria, eta Igarzabal, serenoa; honek kargu hartzen dizu kalean kantari aritzeagatik.»

Igarzabalek: Naiko komeri badaukat, jaunak,
kaleak, nik, ongi zaintzen,
ta gizatxar hau hemen datorre
jotake bertsok kantatzen;
ordu hauetan hola ibiltzea

ez al zerade lotsatzen?
Urte hoiek jo mundu hontan da,
zuk zer dezu pentsatutzen?

Nik: Gaiztakerian hitzegiteko
badaukazu balorea,
batere ez zait neri gustatzen
zuk daukazun kolorea;
kale ertzean kantatutzen det
hain bertso dotorea,
noiznahi ez det harrapatzen nik
horrelako umorea.

Igarzabalek: Baña, gizona, gauza bat nago
zuri esan beharrean,
ez dakit zer gauza egin ere,
jartzen nauzu bildurrean;
kezka ematen dit emateak
porrarekin bizkarrean,
bertsoak kanta itzazu plazan
eta jendean aurrean.

Nik: Nik plazan ere badakit inoiz
bertsoak txukun kantatzen,
kalean ere patxadaz noa,
inoi ez diot faltatzen.
Zuk zerengatik isildutzera
Goiburu dezu behartzen,
plaza ta kale dabilelako
ohitura onak indartzen?

Igarzabalek: Orain zertxobait esan nahi dezu
hortik hutsaren peskisan,
zu bezelako txarlatanekin
aspaldi aspertu nintzan.
Zertan zabilta hola, aizazu,
zu txorimaluen gisan?
Izkutuan ez hola kantatu,
ez zaite kobarde izan.

Nik: Taberna barrun saio bat egin
ta kanpora aterea,
zuk, berriz, hemen jarri didazu
orain arpegi area,
nik maitatzen det bertsoa eta
maitatzen det euskerea.
Nere hizkuntzan jarraiko det
eta zuk egin zerea. (1)

Gaiak bakarkakoak ere izan ohi ditugu. Behin, ni langilea, eta lan eskasiarengatik tailerretik bota egin nindutelako gaia jarri zidaten, eta nik:

(1) Loiola Herri Irratiko saioan, 1971an.

Gazte gaztetan sartua nintzan
fabrika koxkor batean,
lana galanki eginerazi
ni horrera joatean,
orain bidali egin nahi naute,
hau da neretzat kaltean,
zumu onenak kendu ondoren
gaztea nintzan anean.

Ni sartu arte fabrikatxo hau
izan da nere lantoki,
nere lanetan segitua naiz
txit umil eta egoki,
orain bidali behar nazute,
ez zerate nere erruki,
Jaunak nahi badu biziko naiz bai,
ez kuidadorik eduki. (1)

Beste batean, berriz (gauzak nola diran), ni jarri ninduten kalegarbitzaile bezela eta Larrañaga tabernari. Nik eraman niola kanpoan utzitako zahagia eta kezkatu zegoela:

Larrañagak: Lasaitasunez ez da oraintxe,
lagunak, tabernaria,
entzun dezute gaur Iriondok
eman diguan berria:
kale garbitzen nere laguna
propio zegon jarria:
zer arraiotan eraman dezu
atariko zahagia?

(1) Loiola Herri Irratiko saioan, 1971 an.

Nik: Kalegarbitzen etorria naiz
zure ate ondo honta,
hitzikan ere ez det egingo,
tabernari, zure kontra,
baina zagia sinistu dala
ziharo ondo jasota,
basurarekin batea ez det
erreka ertzean bota.

Larrañagak: Nere bistatik eraman dezu,
ni hortan seguru nago,
merezi dezu eta nik esan
beharra daukat gehiago:
zure moduko gizonarekin
bizitzerikan ez dago;
disimuluan eraman dezu
zu mozkorra zeralako.

Nik: Mozkor kontua aitatu dezu,
gezurra edo egia,
ez pentsatu ni naizenik, gero,
zurrutean gehiegia.
Etxeko gauzak jasotzeko zu,

alperra edo nagia:
ate ondoan ez da utzitzen
postura hortan zagia.

Larrañagak:

Ustez laguna nuan hau baina
galdua zaio burua,
erdi kargaturik zegon eta
memoria zun erua,
kalegarbitzen ustez banuan
lagunaren anparua;
mendian artzai jarri liteke
holako barrenderua.

Nik:

Kaleko lanak egiten ditut
hain suabe eta gozo,
kaleko jende dana nerekin
konforme bait dago oso,
zure etxeko gauzai zuk ere
hobetogo egin kaso,
ate ondoan hola ez utzi,
beraren tokira jaso. (1)

(1) Loiola Herri Irratiko saioan, 1971 an.

Nikolas Zeberio Itsasondoko bertsolaria ezaguna ezezik laguna ere badet. Makiña bat gai jarri digu Goierriko bertsolarioi elkarrengana bildu izan geranetan. Baña denbora asko ez dala, Iruña aldera aldegin digu lantokiz aldatu dalako. Hari eskeintzen dizkiot ondorengo hauek:

Nahizta ez nuan gazte denboran
idazten asko ikasi,
lapitza eta paperarekin
ekin diot jo ta hautsi;
gure lagun bat joan dalako
Nafar-aldera igasi,
bertso batzuak jarri nahirik
Zeberio Nikolasi.

Bertsolariak tarteka zerbait
jardun beharra daduke,
berezko pixkat duan hura zuk
mejoratuko zenduke;
nik bezelaxe makina batek
aitortu behar genduke:
hainbat mesede egin dezula
Goierriin hutsaren truke.

Inoiz biltzeko izendatzean
iluntze edo arratsa,
gaiak sortu ta maisu lanetan
ez zinan gizon narratsa.
Orain aldegin diguzulako

badaukagu pena latza,
zuk jorratutzen zendualako
guk degun bertso-baratza.

Zeuk sortu eta jartzen zenigun
geuk ez dakigu zenbat gai,
gero gugandik zer aterako
zu hor egoten zinan zai;
maisú lanetan ona zera ta
bertso kantatzen ere bai,
horregatik zuk aldegitetik
Goierriñ ez genduan nahi.

Lendik bazegon zure anai bat
Iruñian edo Panplonan,
zuretzat ere ogibidea
orain bilatu dezu han;
behar bezela sartzen bazera
harakin hoiñ eskolan,
ez dezu egin behar izango
guk hainbeste astolan.

Zenbait harakin ez da izaten
oso alaja zuzena,
idia dala esanda saldu
behia edo zezena.
Jakinagatik animaliak
granjatikan datozena,
hil ondorean jartzen diote
baserrikoen izena.

Al dan merkena txekorra erosi
berak nahi duten aldeti,
erostekoan txarra bada're
saltzekoan ona beti.
Gaizki ez dezu hartuko noski
egiak esanagati,
nekazaritzak ematen dio
hemen makinatxo batí.

Zuk ez zenduan begiratutzen
nonbait leku bakarrera,
ta Iruñean hartu diguzu
harakinaren karrera;
inoiz etorri nahiko bazendu
lehengo paraje zaharrera,
gu biltzen geran mahai maitean
libre daukazu sarrera.

PATXI IRAOLA

nire sentimenak,
pozak eta penak,
oroitzapen barruan
aurki litezkeenak,
sortu nintzan herrian
garrantzizkoenak,
baldin laguntzen badit
zentzuzko ahalmenak
kantuz historiatzen
oraina eta lehenak.

«Olegi» etxe zaharra
egina dagon lez
antziñako moldez,
betik harriz ta gora
zurez eta oholez,
hantxe sortu ninduten
nire ustekabez,
ta gizaki landare
izanikan nerez
geroztik hemen nabil
egunez ta gabez.

Zortzi senide gera gu «Olegin» jaiokak, aita Pedro Joxe eta ama Jenobebaren frutuak: sei anaia eta bi arreba. Danetan zaharrena ni, Patxi. 1933ko Apirilaren 23an jaio nintzen. Maiorazkoa, beraz. Baina gure etxean ere, beste askotan bezelaxe, bat etxean geratu eta besteak nora edo hara abiatu behar izan zuten. Neri suertatu etxean geratze hori.

Gure etxean bazan danontzat aina lan, izan ere lur eta baso sail haundiak ziran. Egurra ateratzen genduan basotik. Noiz-behinka kamioikada bat preparatu eta Lizarrako Sukiak eramaten zuan. Han aritzen zan gure aita hori iloba saila hartu eta egurra pitza-tu eta laberako preparatzen. Lana egiten zan, baina umore fal-tarik ez.

Bazan fruta arbolarik ere gure etxe inguruan. Sagastiak gehienbat. Etxe bueltan, berriz, txermenak, kerizak, aranak, indimahatsa, pikuak, erramua, intxaurrak...

Bai, bada, danentzako lana, baina guztiontzako hainbat irabazterik ez, eta orduko egoera eta ohiturak agindu bezela, bat etxean geratu eta beste senideak, ahal zuten moduan, beren ogi bila abiatu beharra. Halare, aste bukaeratan etortzen ziran etxean laguntzera, batentzako asko samar zela eta.

Gure auzoko aitona bati entzun izan nion, ia garai hartan:

-Baserriak ez du ematen. Baserrian andre eta gizonak beren seme eta guzti lanegin galanki, danen artean, gainera gaizki jan eta jornala ateratzen bada, jornal koxkor bat, langile batek nonnahi fabrikara joanda irabazten duana, nahikoa izaten da.

Nire ondorengo bi anaiak oso gazterik atera ziran etxetik: lehenengo baserrira morroi, urte bat edo bian, eta gero igeltseritzan, peontzan noski, ofizioaren jabe egin bitartean. Arrebak, berriz, neskame. Horrelaxe, ahal duanak ahal duan moduan, denak kanpora, nahiz haseran etxera bildu lotara.

Oinez ikasi eta
laster atarira,
lehenen abiera

enparantza alde ta
berdin artegira,
Nañarriri (1) begira
aldiz aurpegira
berdin Gaztelu (2) eta
auzoko hegira,
nire lehen zentzuak
hortxe sortzen dira.

- (1) Nañarri da, Goierrin, Txindoki mendiari ematen zaion izena.
(2) Gaztelu Txindoki aldameneko mendi tontorra da.

Aitona ta amona,
aita eta ama,
denek nahiko lana;
bakoitzak bazituzten
eginkizun bana.
Hirugarren urtean
pauak emana
nintzan: garaian gerra,
soldatu ta arma
saltatu zen anai bat
bestearengana.

Nik hiru urte nituela hasi zan Espainiako gerra zibila. Oso umea nintzen. Hala eta guztiz ere akordatzen naiz orduko gauza batzurekin.

Behin batean, gure etxera berebiziko soldadu pilo a etorri zan. Haien hankahotsak mandioan eta ganbaran! Ganbara osoa bueltatu eta barrundatu zituzten arrautza guztiak jan zituzten, apenas alerik utzi zuten.

Hiru urterekin zaila ere bada eta nik ez nekien garbi zer gertatzen zen, baina zerbait bazala konturatu bai. Gure aitonzana Arandi esaten genion terreno ixkina batean ari zan oi halaga konpontzen. Arandi hori zan auzokoekin, kaletik eta elizatik etxerakoan, partidak egiten genituen lekua. Alamartsoa (San Juan sua) ere hantxe egiten genuen.

Esan bezala, bada, hantxe ari zala etorri zitzaizkion soldadu horiek. Gorritakoak omen eta Iparragirre baserrira zihoazen. Bazen ordiziar karlista bat andrea baserri hortakoa zuena eta haren billa ibili behar zuten. Bitotxeko Muinoa deituriko lekutik tiroren batzuk ere egin omen zituzten, baina apenas kalte handirik. Bitotxe, Iparragirrereren ondoan dagoen hiru bizitzako beste baserri bat da.

Inguruko zulo guztiak miatu zituzten arren, ez zuten gizon hori aurkitu. Aidanen, ardientzat prestatutako aterpeko gari-pilan gorderik zegoen. Hantxe, gainean ibiliak izan behar zuten, baina alperrik.

Horrela ibili ondoren, etorri ziran, berriro, «Gorri» horiek gure etxe aldera. Orduan gure etxe hartan lur asko gorritzen zan. Sagasti berriak ere bagenezkan. Gogoratzen det sagar tartean patata eta abar nola ereiten genduan. Soldaduak hemen tokatu ziran egunean, gari ebakitzen ari giñan gu Teleitxo-buru esaten genion soroan.

Orduan merienda sorora eramateko ohitura zan baserrietan. Gure ama horrek aitonaarekin bialtzeko asmoa zuan, baina soldaduak bertan ikusi zituenean, haiekin ikaratu eta bera joan omen zan sorora. Akordatzen naiz sagar haundi baten azpian ari giñala meriendatzen aitazana, orain koinatua degun Juan eta denok, soldaduak bueltan itzuli ziranean. Handik Benta-berri aldera jo zuten: Alkortane edo Beheko-etxe esaten zitzaion ostate horri. Lehen Olegikoa izandako terrenoan zegoan.

Orduko Alkortane edo gaurko Benta-berri horretan bazan Teodora izeneko neska gazte bat. Begi bistan daukat Aldatsegiko iturrira joan eta bueltan zetorrela etxeko atarían nola egin zuen soldaduekin topo. Hauengan, jakina, gauza

asko biltzen ziran: egarria, jolasgura, gaztetasuna, taldean egoteak eman ohi duen harrokeria. Teodorari txarroa behintzat hustu zioten. Gu hantxe geunden begira eta ez naiz ahaztuko, sekula, haien armak eguzkitan nolako diztira botatzen zuten.

Herria goibel eta
festik gabe plaza,
nola umorez dantza?
Herri eta mendian
odolaren mantxa;
hainbat gaiztakeri ta
hainbeste bengantza,
gorroto dun bihotza
ez bait da beratsa.
Ta azkenean Francok
eraman zun baza.

Ni ez nintzan, halare, gerraz askorik jabetu. Ongi akordatu bai, ordea, noiz bukatu zan. Orain gure koinatua deguna, Juan Asunaabarrena, gure etxean egoten zan. Lizentziatu bezain laster Bitotxeko Patxi eta biak badakit Apa-txegiko gaztaindegitik gora, zakur guztiak zaunkaz zituztela, nola etorri ziran, gerran hiru urte jo ondoren. Gure etxean, zerbait hartuz, tertulia egin zuten. Hitzaspertu bat egin ondoren, gu lotara eta Patxi bere etxera banatu giñan. Patxik ez zuan suerte haundirik izan: Tolosan lanean ari zala izandako ezbeharrez, handik urtebetera edo, hil bait zan.

Gerra ondorenean
gosetea berriz,
jatekoen urriz
ez zen loditzen inor
lepoz eta gerriz.
Mahaian begira egon
elkarri aurpegiz,
lehertu bildurrik gabe
janaldi gehiegiz,
altxatu izan giñan
makiña bat aldiz.

Gerra ondoren, gosea ez-ezik, umea ere behar aiña bazan. Eta gaitzik falta ez egoera erabat edertzeko. Ordiziako izeba batek udazkena, babarrunak bildu, artoak sartu eta abar, gure etxean pasatzen zuan. Sukaldean aparta zan. Perretxiku biltzen ere gutxi bezalakoa. Perisaskia hartu eta baso aldetik buelta bat ematea nahikoa zuan puska bateko ase hartzeko. Hari esker hasiko ginan gu perretxikuak jaten.

Baina gure izeba hori gaixotu egin zitzaigun. 1939ko udazkenean tifusak harrapatu zuan eta hura komerial! Gure ama famelia izateko egunetara iritsia zegoen eta hura han, berriz, gaixo. Ordiziako Don Nazario Zubizarreta zan, orduan, gauzak grabe samarrak ziranean-eta ibiltzen genduan medikua, eta hari hotsegin zioten. Etxetik norabait lehenbailehen ateta beharko zala edo... Ez zegoela mugitzerik, hark, bertan hilda geratzeko arriskua zeukala eta. Gu larri, berriz, kutsatuko ote giñan beldurrez.

Egun batzuk iraun zituen, baina berehala gastatu zan. Etxetik segituan atera behar zala. Hilobizaleak behar, ordea, horretarako eta gure etxera inork etorri nahi ez. Orduan gaitz horri izugarrizko bildurra zitzaion. Pentsa, auzokoak kolkoan baratzuria hartuta ibiltzen omen ziran. Gu, etxekook, txertatu egin ginduzten. Gure aita horrek, nola-hala, juntatu ditu hiru hilobizale eta laugarrenaren faltaz berak bete zuen haren lekua. Hurrengo egunean jaio zan arreba bigarrena, boskarren senidea, Joxepa, izebak tokia egin zai egon balitz bezala. Gu, etxazpiko soroan ari giñan garia ereiten, denak beharko zirela eta.

Izan ere, gerra ondoren ezarritako rasionamenduarekin zer nolako komeriak! Baserrian izaten zan gauza guztitatik Estaduari zerbait (asko, gehiegi) entregatu beharra zegoen: babarruna, artoa, garia... tabakoa. Bai, tabakoa ere bai. Beno, argituko det: tabakoa ere rasionamenduan jarri zuten eta etxean, guk, hiru erretzaile: aitonazana purrukatuena, aita eta orain koinatua deguna. Hauekin, kanpotik etorritako tabakoa laster izkututzen zan.

Kontuak hola dirala, gure auzo alde hortan baziran mutiko bizkor askoak, aitonazana erretzailea izana ondo baino hobeto aprotxatzen zutenak gure etxean kerizak jateko. Izan ere auzoko Emakumaran baserrian tabakoa ereiten garaiz hasi bait ziran. Keriza garairako polita egoten zan tabako landare hori. Azpiko orriak bildu eta gure aitonazanari ekartzen zizkioten mutikoek; eta hark, trukean, keriza jaten uzten zien. Mutikoak gustora eta aitona ere bai.

Beraz, eskasia zela eta, tabakoa etxean, bertan, egiten hasi ziran. Erregaditzen eta abar lan dexente ematen zuan, baina gurdikada ederrak sartuta gaude. Ordiziko alondegira entregatzen zuenaz aparte (hara eramaten ziran Estaduari eman beharrekoak) lagun batzuri ere ematen zieten gure etxe horretan. Gerra ondoko urte batzutan iraun zuen egoera honek.

Behin batean, behintzat, Bitotxeko Manuel etorri zan etxera tabako eske. Arratsaldean bialduko ziola umeekin, esan zion. Eta hala, hiru anaiok bidali gintuan aitak. Ordurako gu koxkortuak giñan. Entregatu genion eta han egon giñan kontu kontari. Artzain zebilen Manuel. Azkenean, ardiak Artxal aldera bota zituanean, Depositura joan behar genduala esan zigun. Depositu deritzana hemen, gure auzoan bertan, dagoen estatua da. Etxea Beasaingo C.A.F. entpresarena da. Tontorrean dago eta behean, Zaldibiako terrenotan, duen zentrale elektriko batera dihoazen ur kanalak eta abar zaintzen dituen goarda bizi da bertan.

Han gertatu giñan, bada, eta zerbait hartuz lasai geunden. Aldamenean artzai batzuk ere bazeuden egunpasa eginda. «Joño! Olegiko semeak bertan!», esanez hasi zitzaizkigun, «Aittek bezin ondo egingo ote lukea bertsotan?», tentatuz. Gu isilik, artean, guregan ere, lotsa sakonagoa zan jakinduria baiño. Baiña, halako batean, bertsotan eraso ziguten eta gu, anaia hirugarrena eta biok, zedozer aritu giñan. Ezin askorik, oso gazteak izaki. Halare, jaikitza gindoazela, orain Gabirin bizi den «Alkixa» izeneko artzaia sartu zan eta harekin ere aritu giñan. Noski, behin berotuz gero...

Etxe hura urruti samar dago baina gure bertso saioaren oihartzunak ez ziran han geratu, nahi baiño gehiago zabaldu ziran. Garai hartan herrian bazen «Niño Jesus de Praga» edo borren kofradia. Gu, asko edo denak bezala, kofradi horretakoak giñan, orduan. Hilaren lehendabiziko ostiralean, horren izenean edo, aitortza egin eta Jaun hartzera joan behar izaten zan. Hala, aurreko gorabehera hori pasatu ondoren joan naiz Don Gabriel apaizarengana konfesatzera. Nik, egindako galdera gehienei erantzun nien eta esan beharrekoak esanak nituala uste nuenean, non bapatean botatzen didan berak:

-Aizu, lehengoan Deposituan bertsotan aritu omen zara, ba.

-Bai, aritu giñan.

-Ba, hori ez dezu ofizio ona, eh!

-Zer, ba?

-Bertsolaria jende arlorea izaten da. Gehienek ez dute gauzonik egiten. Hobe dezu ofizio horri uztea.

Lekutan zegoan ofizioa!

Halare, apaizak-eta esandakoa benetan hartzen genduan garai haietan. Puska batean, behintzat, utzita bezala egon nintzan. Beti, ordea, hori gogoan nuala. Alperrik dala! Hori berezko griña izanik, berriz ere tentatu egiten gaitu, eta gintuzten orduan. Ea ba!

Bertso giroan berriz zer esan? Guk etxean, bertan, ezagutu genduan giroa. Nik uste, orduan etxe gehienetan zala umei lo har eraztekoan kantatzeko ohitura. Askotan bertsotan aritzen ziran. Gure amak kantatzen zituan, behintzat: «San Joseren zazpi doloreak», gero Xenpelarrenak batean, bestean ez dakit zeinenak. Beti holaxe. Kantatzeko grazi puxka bat ere bai hark!

Nire aldetik, berriz, uste det oso gazterik hasi nintzala entzundakoa gogoan jaso eta gero eskatu ahala errepikatzen. Gazterik hasi ere! Oso txikia nintzala, akordutzen naiz, Zizurkila joan giñan, gure amaren lehengusu baten etxera. Praktikantea zen berau. Fonografoa zeukan eta Pello Errota eta Txirritaren bertsoak zeuzkan grabatuta. «Bota, Pello, ifff!», egundoko oihua entzuten zan. Beste honako hau ere bai:

«Jeronimo entzun zazu,
neskatxarekin ibiltzen zera zu.
Aita datorrenian, nian...»

Etxera etorri giñanean, nereka hasi nintzan kantatzen. Umea ni, eta grazia egiten nonbait; hala galdetzen zidaten: «nola kantatzen zuan, bada, fonografoak?», eta nik dena esaten nien ondoren hartan.

Etxean hola. Baina nik tabernan lehenengo aldiz, aitazana ikusi nuan bertsotan. Behin, «arratsaldean mendira joan behar diagu» esanez eraman ninduan. Ni konforme, umea nintzan eta, mutil koxkorra. Ezki deitzen diogun toki horretara joan giñan. Han egur «suerte» genduan eta pagoei seinalea egiten genien, Guk «suerte» bezela Abaltzisketan «zotza» esaten zioten. Herri terrenoak ziran, hemen Norteko trenbidea egin zanekoa: herrian dirua behar eta, baserritarrei eskatu omen zieten. Orduan, horren truke edo, herri terrenoetako egur eta garoak aprotxatzeko eskubidea eman zieten. Baina ez zeukaten pagoak hondotik botatzerik.

Hangoa bukatu eta etorri gera Depositura. Erromeria zegoan. Aze nolako umorea! Gazte jendea, bastante. Batzuk dantzan, besteak sukaldean. Giroa hartarakoxea eta gure aitazana bertsotan hasi zan, ez dakit zeinekin baina, bai luze aritu zirela. Eta ni hantxe, harritzen: «Hau nola liteke?», eginez. Batak besteari gogor erantzuten zioten eta nik horri aparteko atentzinoa jartzen nion: «Neu ez ote nitzake gauza?», galdetuz neure buruari. Orain, berriz, hau gogoratu eta hainbat bertso bota ondoren, bestelakoa da nere buruarekiko galdera: «gauza izan ote naiz, gero?».

Gero, Benta-berrira kanpoko bertsolariak etortzen hasi ziran. Nik lauren bat urte nituala, eskuz aldatu, Alkortane izateari utzi eta Benta-berri izenez ezagutzen degu. Errekarderatzen ibiltzen zen María Garmendiak, «Mariaundiak» hartu zuen. Ostatuari indar berria ematearren edo, urte horretan bertan izan ziran bertsolariak. Bata, Artzanberri, bestea ez dakit, Donosti alde horretakoren bat. Artzanberri ondo aritu zala daukat aditzera. Besteak egundoko berdekeriak eta disparateak bota omen zituan: «...emakumeon galtzak dirade batere botoi gabeak». Badakizue... orduan berdekeria, sermoitik eta, ederki astintzen zuten.

Gerora eta sarriagotan zan bertsolaria Benta-berrin. Joakin Zubeldia «Gautxori» ezizenez ezagutzen genduanak hartu zion taberna Mariaundiari errentan. Egun batean gure aita erabat harrিতa etorri zitzaigun etxera: «Benta-berrin bertsolariak daude. Basarri eta Uztapide dirala esan dute. Hoiiek omen dira gaurko bertsolaririk onenak. Eta beraiekin batera han aritu da mutil ttiki, ttiki, ttiki bat: Abalingo Feliperen semea omen da. Baina bertsotan nola egiten duala gero!». Garai bateko Asteasuko Amerikano ttikiaren tankera hartu ziola: «Hura aterako da oraindik bertsolaria. Halakoxe tankera eman diot ume horri». Lazkao-Txikirengatik ari zitzaigun, eta ez zegoen deskuidatuta. Begira noiztik ari den Lazkao-Txiki jendea harritzen. Makiña bat botea da harrez gero.

Behin, aizkora apustua egin zuten hemen Arruarte baserriko (Jeronimo Beloki) «Motzak» eta Mirandetxeko (Jose Fco. Nazabal) «Biandetxek». Apustua Pazkoa bigarreanean, Saturdiko festa egunean jokatzekoa. Orduan ere ez zan apustu gabeko festarik, ezta festa gabeko apusturik. Saturdi Zaldibiatik Larraitz aldera goazela ezkerretara dagoen auzoa da. Ermita polit bat ere bada bertan, San Saturnino santuaren babesean dagoena.

Iritsi zen eguna, bada, eta «Motza» azaldu ez: apusturako gobernatzen ari zela baba-jan apartekoren bat egin du eta apustua jokatzeko gauza ez. Teleitxo tabernan Benta-berri baino aurreraxeago, egon omen zen (gobernatzen). Gogoratzen naiz taberna sarreran honako letrero hau jartzen zuena:

«El que quiera beber vino de Aragón

que entre en este bodegón».

Kustioa da Saturdi auzo horretan egurrak jarri zituztela, baina «Motza» falta. Dena gertu zegoen eta esibizioa antolatu beharrean aurkitu ziren. Benta-berrin maizter zegoen «Gautxori», Irizar baserriko «Naparra» eta Aldaskortako Joxeren aurka. Beraz, bat biren kontra. Alde haundi samarra zen baina jendea zai zegonez, prezioa zan zerbait prestatzea. Gainera «Gautxori» Benta-berritik jeneroa hartuta tabernari bezala joana zan.

Jokatu eta, ustearen antzera, bikoteak irabazi.

Basarri eta Uztapide ziran bertsotan. Meza ondoren jardutekoak. Basarrik ekin zion herriko alkatea eta gainerako agintariak goratuz. Uztapidek herriko aguazila hartu zuen gaitzat, han bait zebilen uniforme urdin-urdina jantzi eta militarren tankerako txapela buruan zuala, ordena jartzen, edo jarri nahian. Gero aizkolariak gai, azkenean «Motza» eta «Biandetxerekin» sartuko zirelarik. Gure ama hantxe zan. Hark jaso zituan gogoan ondorengo hauek. Hura, izan ere, harrigarria zan. Bazuan memoria! Hemen Basarriren bertsoa:

Gaur goizean hartu det
notizi garratza,
orduantxe tristetu
da nere bihotza;
kunplimentu ugari,
pulamentu hotza;
nik galdetzen dizuet
non gorde dan «Motza».

Uztapidek, berriz, honela bukatu zuan:

«.....
Jokoa galdu eta
trabesean kitto,
lanean leher eginda
ez dirade itto».

1945. urtean zen hau. Basarrik hogeitamabi urte zituen eta nik hamabi.

Aukera genduan guztitan entzuten genituan. Hala sortu zitzaigun guri sendi artean bertsotan egiteko ohitura. Bertsotan edo... hala esaten genduan, behintzat: «Bertsotan egingo al diagu?». Artazuriketan, aleketan eta abarren garaian izaten zan hori.

Egun batean, Mizpizabaleko bere lehengusu Batistak ia-iatan zegoen ardi-zahar bat eskaini zion gure aitazanari. Etxera ekarri eta larrutu egin zuen. Ez zeukan hezurra eta azala besterik; argia pasatzen zitzaion alderik alde. Pixuan sei kilo t'erdi eman zituan. Gaitzat hartu eta ansia Pedrok eta biok puntutara ekin genion:

Nik: Batistak eman digun ardi hoi
ez huan oso edarra,

Hark: sei kilo t'erdi pixatu zetik
bere gizen da giharra;

Nik: ta mondejuak eingo baziran
segoa erosi beharra.

Hark: Hobe genduan horri utzita
hil bagenduan oilarra.

Zortzi urte ondoren
eskolan lehen hasi,
hobe ez banintz, kasi.
Martin maisuarekin;
hark zer irakatsi?
Falangisten sustraia
nai zigun itxatxi,
ordun bait zen indartsu
kaudilo zen Patxi.
«Cara-al-sol» kantatutzen
genduan ikasi.

1944. urtean Ordizian ibili nintzan eskolan. Gure etxe horretan... erderaz ikasi behar nuala eta Ordizira bidali ninduten. Baina zera ikasiko nuan! Han ere bazeuden euskaldunak eta haiekin ibiltzen nintzan ni. Beti euskeraz. Gainera oinez, Zaldibiatik oinez joan behar eta laster aspertu nintzan.

Hurrengo urtean herrian, Zaldibian bertan, baina nazionaletan baino gehiago ikasten zala eta, maistra batekin, partikularrean. Ordizian erderaz ikasi ez banuan ere, numero batzuk egiten bai eta hark gerorako babo izan zidan. Orain ere orduan ikasitakoa baino askoz gehiago ez dakit. Eskola aldetik nahiko arrote gelditu giñan gu. Hamabi urterekin utzi nuan, pena galantarekin utzi ere, orduantxe joaten bait nintzan gustora.

Gu eskolara anoa etxean hartuta osatuta joaten giñan: lukainka, urdaia... Eskolan bazegoen estufa zahar bat eta han elurteko egunetan berotu edo berdoztu bat eman eta aurrera. Razionamentu ogi hura bakarrik jaten nuan ia dana.

Baziran gehiago ere nik bezala, eskolan bertan, puska lehorrarekin bazkaltzen zutenak: Mamuneko Joxe, Otsaitzako Pello eta Biantetxeko Domingo, besteak beste. Egun batean, litro erdi bat ardo erostea pentsatu genduan. Peseta bat balio zuan, erreal bana beraz. Joxek, Pellok eta nik jarri genduan baina Domingok ez zuala jarriko. Aurrenetik, ez zeukala esan zigun. Guk bagenekien, ordea, bazeukana. Gero, gerrikoa egiteko behar zuala. Azkenean, horratik, bota zigun ditxosozko erreal hori. Hartu eta laster joan nintzan ostatura. Razionamentuko ogia eta gainontzeko jakia ondo beratzeko edan degu litro erdi ardo hori, eta ez giñan gaizki jarri hamabi urteko mutikoak.

Ondorengo egun batean, amazanaren lehengusu baten semea hil zen. Aita-amak entierroa joan behar eta, ganadutakoak egiteko eta abar ni utzi ninduten etxearen kargu. Goiza horrela pasatuta joan naiz arratsaldean eskolara eta non aurkitzen ditudan nere lagun horiek zimiterio inguruan: batzuk hankahutsik, besteak galtzerdiekin bakarrik... Parrokiko saloietan hasi dira, nonbait, baleketan jolasean. Akordatu da bikarioa, joan isil isilik eta makilarekin aurrean hartuta, ipurtaldeko ederrak emanez, non ateratzen dituan danak kalera, zeuden bezelaxe. Dena elurtuta zegoen. Ez zan, ez, bikarioa, txantxetan hartzeko gizona.

Dotrinara joateko ere nahiko bildurra edukitzen genduan. Nik, neronek, ez nuan halako kastigu haundirik jaso, galderei erantzuteko aina beti jakiten nuan, baina baziran ederki asko sufritutakoak. Gure amazanak arreta haundia izan ohi zuan guri dotrina erakusteko, errezatzen ere oso saiaturia zuan. Geu ez gera hain beroak atera, baina ez hura saiaturia ez zalako. Lehen ere esan det nolako memoria zuan, eta hark dotrina memoriz zekian, bai euskeraz eta bai erderaz. Baina erderaz propio ikasten aritu gabe ikasi zuan, apaiza besteei lezioa hartzen ari zala. Hamabi urtekin Beasainen ibili omen zan eskolan, eta garai hartakoa izateko, erderaz poliki eta eskola apur bat ere bazuan.

Kartilla tiki bat zen dotrina liburu hori. Ikasi beharrekoa lapitzarekin markatuta ekartzen genduan etxera. Gure ama horrek segituan galdetzen zidan: «Gaur ze lezio eman dik?». Hark egiten zituan saioak gurekin! Gero galderak egiten zizkidan, baina askotan nik ezin erantzun. «Hik daukek burua, hik!» eginez hasiko zitzaidan. Ohera joaterako, ordea, harekin saioa eginez gero, hurrengo egunean, jaikitzen nintzanean, gauean bueltaka ibilitako galdera haiek, gehienak, gogoan izaten nituan, eta horretxegatik libratu izan nintzan dotrinako zenbait zigorretik.

1947. urtean, nik hamalau urte, izugarrizko lehortea gertatu zan. Errogatibak hemen, errogatibak han ibili ziran denak. San Saturnino ekartzen zuten Saturditik behera. Hiru egunez edukitzen zuten behean. Hiru egun horietan, letaniak kantatuz, berarekin egiten ziran prozesioak. Azken egunean, berriro, jendea bideak betean zala, Saturdira Bidean errekan bustiren bat emana izan behar zioten, santua jendearen premiaz hobeto jabe zedin edo. San Prudentzio inguruan izango zen hori; eta maiatzaren batean ez du, bada, kristoren elurra egiten! Ez zan jendea oso gustora. Gainera, geroztik ez zuan San Bartolomeak arte euririk egin.

Hamalau urterekin morroi joan nintzan Teleitxo baserrira. Bertako nagusia gaixo eta aurrenetik artajorrek egin arteko eskatu zizkion mutil kokkor pare bat gure aitazana horri. Anaia Pedro eta biok joan giñan. Gero, berriz, ea ni pixka bat gehiago geratuko ote nintzan. Gure aita horrek baietz, eta hala, guztira zazpi bat hilabete pasa nituan.

Ordurako ia hasiak giñan karnabal. Hamairu urteren bueltan, Zaldibitik atera, Gaintzetik Alzagara. Altzagaraten bazkaldu genduan. Arratsaldean Baliarraina ailegatu ere bai. Egunez biltzen genuen dirua gaez partitu. Egun hartan hiruna duro. Hiru anaien artean bederatzirekin etxeratu giñan. «Hobe genduke egunero karnabal balitz», egiten zuten gure aita-amak. Izan ere garai hartarako ez bait zen jornal txarra. Artean ez giñan tabernara joaten eta holaxe ekartzen genduan etxera, txintxo-txintxo.

Baina ez zen egunero karnabal, eta gu, bi anaiok, Teleitxon morroi. Hango nagusiak Juan Joxe zuen izena.

Beronek, ni hantxe nengoela jokatu zuen apustu famatua. Ez baezpakoa, gainera! Lehenengotik, Zaldibiatik Nañarrira (Txindokira) zein lehenago joan lortzako (Bitor Iburguren) «Mataza»rekin zan jokatzekoa. Kondizioak ere bazituzten. Bitor zaharragoa zan, eta pixuagoa ere bai. Juan Joxek, Bitorren pixua berdintzeko, bere soinean eraman behar zuen diferentzia. Azkenean, ordea, hau edo hori zelako, ez zuten apustu hori jokatu. Juan Joxek, berak, bakarrik joan behar zuan Nañarrira, horrenbeste denboran eta hainbesteko pixua hartuta: 42 kilo bizkarrean, besterik ez!

Abuztuaren hirua, eguna, Portziunkulako igandea. Portziunkulako igandea jai haundia izaten zan garai hartan. San Franziskoren eskapularioak eta danak jantzita joaten ziran elizara Hirugarren Ordenakoak. «Teleitxo» hori ere joan zan. Gero etxera etorri, gosaldu (fuerte, hobeto indartzearren) eta Nañarrira.

Eguerdiko hamaiketan ekin zion bideari. Beroa ikaragarria. Abiatu, dotore abiatu zan, soinujole eta guzti (apusturik ez festarik gabe). Itzala egiteko estandarteak ere bazituan. Sekulako espektakuloa han antolatu zutena. Uriako iturrira arte, Nañarriren maldan, bastante aguro igo zan. Bere aitazana eta biok basoan ari giñan, lehortea zala medio, ganaduarentzat hostoa kimatzen. «Ez nuan uste, baina joan igoal egingo da hori», zioen Martintxok, Juan Joxeren aitak. Baina ez zen joan.

Hantxe nengoela, Ermandadeko afaria suertatu zan. Teleitxon taberna zan, orduan. Askotan bezala han bildutako ingurukoak eta gure aitazana bertsotan hasi ziren (Lazkaotxeko Hilario Amundarain, Urtsukoerrotako Erramun Irastorza, etabar). Laster, ordea, batak presa zuela eta besteak ere bai, gure aita bakarrik geratu zan. Halako batean hasten da Arrupeko Antonio (Abaltzisketako Arrupe baserrikoa), parranderoa zala eta antzeko kontuak esaten gure aita horri. Eta gureak, halako batean hau kantatu zion:

Antonio, badigu
zenbait esamesa;
hi ere ni bezela
nahiko aldrebesa;
eta gu zuzentzea
ez zegok erreza:
hi ta ni zeruratzeko
alperrik dek meza.

Teleitxon nengola, jende kuriosorik ezagutzea tokatu zitzaidan. Gure aitaren lehengusua horietako bat. «Primo zaharra» deitzen genion. Han juntatu zan, behin, festarik festa eta esibizioak egiten ibiltzen zan azpeitiar batekin. Azpeitiko Etxaniz berau, harriekin, furgonetak mugitu eta holako gauzak egiten zituana. Biak alkartuz gero bertsoak seguru izaten ziran. Nik ezagutu nituanean ere bai, noski. Haiek bertsoei hasiera emateko, halamoduzko bertso bat preparatua edukitzen zuten. Orduan ere Etxanizek horietako batekin ekin zion:

Aldamenetik tentazioan
hasi poliki-poliki,
ez nuan asko pentsatzen, baina
tentatzen nazu ederki.
Hemen gaur zer egin behar dan
buruzuriak badaki,
honek bertsoak kantako ditu,
ez kuidadorik eduki.

«Primo zaharra» Joxe Franzisko Armendariz Iraola zan izen deituraz. Ataundarra izatez eta gure aitonazanaren arreba baten semea. Zaldibira askotan etorri zitzaigun zahartu zanean. Aurretik ez dakit zer bizimodu klase eramandakoa izango zan. Hemen, behintzat, tarteria dezentea zeukan. Gure etxea sarritan bisitatzen zuan. Ofizioz zurgina, berriz.

Urte batean, Santa Fe (Zadibiko jaiak, Urriak 6ean) aurrean tokatu zan gure etxean. Garai horretan etxea pixka bat zuzendu eta izaten da lan apur bat, eta han ari zan kristalak jarri eta beste zenbait eginkizunetan. Auzoko aitona batek, ez dakit zergatik, pulamentu haundirik ikusi ez ziolako edo, zer ari zan galdetu zion eta hark, derrepente, bertsoan erantzun:

Bista haundiaren beharrik ez da
zer ai naizen ikusteko:
nik konpontzeko kargua daukat,
norbait izan da hausteko.
Kanpoko argia barrura pasa
ta barruan ez hozteko,
lengusu hauek esan didate
haize zuloak ixteko.

Bertso dotorea zan arren ez det uste hango pakeak horrenbestez egin zituanik. Gure aitazanak, hura konpondu bitarteko etxeko ostatua garesti samarra aterako zitzaion beldurrez edo, bazkalondo hartan honako bertsoa kantatuz zirikatatu zuan «Primo zahar» hura:

Beste lanikan ez balegoke
ederki gatxeudek hemen,
eta bakoitzak bere egintzak
kunplitu ditzagun lenen.
Moteil, badakik herriko festak
gainean nola diraden,
kristalak, behintzat, jarriko al dituk
Santa Fe eguna baino len.

Eta orduan betiko bertso «komodin» harekin prestatu zuen erantzuna «Primo zaharrak», aurreko egunetan Etxanizi entzundakoarekin:

Aldamenetik tentazioan
hasi poliki-poliki,
ez nuen asko pentsatzen, baina
tentatzen naute ederki.
Hemen gaur zer egin behar dan
buruzuriak badaki,
«Primok» kristalak jarriko zetuk,

ez kuidadorik eduki.

Uztapide eta Basarri sarritan izanak ziran Benta-berrin. Haien ikusmiran jendea ugari bildu ere. Gero jendeak ondo hartzen zituen eta bertsolariei ere atsegina zitzaien hango parada. Lazkao-Txikik makina bat saio egin zituan eta guretzat bertsotan ikasteko aukera ezin hobea gertatzen zen hangoa.

Bi bertsolari haundi haiek ari ziren egun batean Lazkao-Txiki, entzule bezela joana, isilik zegoen aldamenean. Bazan bertan sala bat nobio-nobiak eta asko egoten zirana. Hura aitzakitza hartuz, isilik dagoena izaten danez zirikatzeke apraposena, kantari hasi orduko kantatu diote Lazkao-Txiki horri ezkontzeko sasoiari dagoela eta abar. Ez zuan beronek ezertan hasteko asmorik baina abildaderik falta ez zitzaionez, han bota zuen:

Askok esaten dute
ezkondu, ezkondu;
bai guk horretarako
modurik bagendu.
Ondorengoak zeinek
jantzi ta mantendu?
Norbereak ere, gaur,
lana ematen du.

Dana dala, azkeneko bertsoa dirudien arren, ez zan, seguru, hala izango. Han aspertzea bait zen lanik zailena.

Beste behin ere gure aitazana aritu zan Uztapide eta Lasarterekin bertsotan. Biak, Uztapide eta Lasarte, alegia, ezkongai zeuden artean. Haiek han ari ziran gure aitari alabarik ba al zukan galdezka. Baietz, baina gazteak oraindik. Besteek gureari haundi samarrak esan izango zizkioten, sobrare, azkenean berak ere bota behar izan bait zien:

Hauek daukatena da
kontua ugari,
gizon formalik ezin
era horretan ari;
biek burla egin nahi
bait didate neri,
ez diet emango, ez bata
eta ez besteari.

Meza Nagusi ondoren, sarritan biltzen ziran Benta-berrin barrioko auzotarrak, herritik etxera bidean bait zegoen, nahiz batzuk hara joateko etxeko bidetik zertxobait apartatu beharra izan. Bazkaltzera etorri gabe bertan geratzen ere bazekiten, tarteka, askok. Gure amak, estu samarra izaki, «Juan hakio, moteil, gizon horri, ea non dabillen edo», esan zidan, hara bidaliz. Joan nintzan eta han ari ziran danak bertsotan, alkarri txanda eman ezinik, haundia bota eta haundiagoak jaso, esan eta entzun, umorerik ederrenean. Igartzetako Joxantonio (Elosegi) hantxe zegoen. Huraxe zan, gure aitaz aparte, bertsotan itxura antxean zekien bakarra, eta gure horrek honela kantatu zion:

Joxantonio, guk teiltuan
ez zeukagu ittukinik,
gehiago ere bazeudek hemen
kantu lanari ekinik,
egun guztian hor ari dittuk
bertso bat molda ezinik,
hoiek ez ditek kantatzen, motell,
guk biok bezin txukinik.

Halare, Benta-berri zerbaite bazan, Teleitxo ere, gutxiago ez izatearren edo, bihurtu izan zan bertsozaleen biltoki. Ez, ordea, batak besteari garrantzia kenduz, zer kendurik ez bait zegoen. Han, gure auzo horretan bertsoa nonnahi eta

noiznahi sortu ohi zan. Egun askotan arratsaldeak motzegiak gertatu ere bai, behin Munduate (bertsotan oso poliki egiten zuena) bere emaztearekin sartu zanean bezela. Ordurako gaueko ordu batzuk ere nahikoa aurreratuak. Migel hori bertsotan aguro jartzen zanetakoa genduan eta aita ikusi orduko hala moduz esan zion, kantatuz, gureari:

.....
Pedrojoxe, gaur, umore onez
lehen sarritako antzera,
behin behar eta gaurkoan ere
jator asko hemen zera.

Aitazanak:

Gora abitzeko beti pereza,
behera errez etorrira,
gaur bezelaxe lehenago ere
gertatu naiz ni sarri-ta.
Bihar andreak begirako dit
kopeta beltza jarrita;
motibo honekin, lehenago ere,
ein degu hamaika errita.

Saio asko egindakoa zan gure aitazana. Uztapide eta Basarri Benta-berrira zetozen gehienetan han izango zan. Behin beste bi horiek han ari zirela, aitazanak despeditu eta aldegin zuen. Baña hara geroxeago, berriro, non sartzen den heuren tartera. Denak etxera joanda zelakoan eta... Bertso kantari sartu ere, gainera:

Hauxen esan behar det
hementxe jarrita,
guztiok badakigu
alkarren berri ta,
etxera joan ezkeru
seguru errita,
ta orain joatea
alper alperrik da.

Orduan Uztapidek andrea farolarekin bila etorriko zitzaioala bota zion, eta gure aitazanak honela erantzun:

Hemen ere badegu
salatia pranko,
neri holako gauza
gerta zaidalako.
Andrea faolakin
eiten badet topo,
etortzen bada ere
maite nauelako.

Oso errez egiten zuen bertsotan. Bere lehengusu eta tokaioari ere bota zion. Izena Pedrojoxe hark ere; mutil zaharra zan:

Nik egin dit zedozer
nahiz berandu ekin,
badizkiat sei seme
bi alabarekin.
Bakardadean triste
bizi bahaiz, baldin,
emango dit andrea
ume erdirekin.

Egun batean Benta-berrin Zelear baserriko Hilario (Nazabal) eta gure aitazana ari ziran kantari. Hirugarrengo bat ere tartean zuten, ez dakit zein. Ni han tokatu eta sailera deitu ninduten. Jarri gera laurok eta Hilariok esan zidan berak eta biok kantatu behar geniela aitari eta besteari. Neri ez zitzaidan honela erantzutea baizik bururatu:

Zuk, Hilario, joka nahi dezu
batak bestea haustea,
ta nik nahiago lan hori hartu
baino askozaz uztea;
aita urtetan aurrera doa
ta ni oraindik gaztea,
ez derizkiot itxurazkoa
elkarren kontra hastera.

Baserrian bizi giñan azken urtetan, terreno sailak danak batera eta, koneju dexente ibiltzen zan libre. 1964a zan, eta aitazana erresidentzian gendukan. Ni, neroni, harekin egoten nintzen eta besteak, berriz, lanera: denok partituta. Etxean inor asko ez gehienetan: ganaduari jana eman, behar beharrezkoenak egin eta handik aurrera ezer gutxi.

Bazan, orduan ere, inguruan jende azkarra eta erbi aitzakian konejuak botatzera etortzen ziran. Haietako batek galduta, Etxaburuko gaztañadian erloju bat aurkitu nuen behin. Eta enteratu zenean, lotsa gutxirekin, erlojuaren bila etorri gizona! Eman egin nion. Berak ez dakit zer egingo zukeen. Esan nizkion, bai, neuk ere nereak.

Ondoren hartan, Gaztelu elkartean bi koadrillak topo egin genduan. Mahai batean Zelearko Hilario (behin bertsotan geure aitaren aurka jarri nahi izan ninduana) bere koadrillarekin. Bestean gu. Hilario bertsolari ona da eta mahai batetik bestera elkarri kantari ekin genion. Nik banekien haiek gure konejuekin zer ikusirik ez zutena, baina, saltsa pixka bat jartzearen edo, ez ote ziran erbi izenean gure konejuak jaten arituko kantatu nion. Hilariok erantzun zidan, Elizegi baserriko Joxiok botatakoak zirala, gure konejuen zorrik ez zutela... eta hola. Hilarlo horrek bere lagunaren abonajea segitu zuan: hark botata behin bost erbi nola ekarri zituan eta... hortik kontuak ateratzeko zer nolako ehiztaria zan. Hurrena kantatu zidan, berriz, urrutira joan gabe, aurreko egunean ere izan behar zuela Joxiok tiroz ileak aterata ihes eginga. Nik, orduan, hauxe erantzun nion:

Beraz, tiroak erbi horri
egingo zion irrista,
hori egia izan liteke
baina ezin det sinista;
garai batean tiratzen zula
nola hodeiek tximista,
orain gezurrak esaten ditu
edo galdu zaio bista.

«**O**legi» zaharrea bizi giñela, anaia Joxemarik bi zakur ekarri zituan. Ez dakit non bilduak edo zeini kenduak, baina baserrian kasu handirik egin gabe eta nahiko abelera kaxkarrean egoten ziran. Bere burua gobernatzeko lain izango ziralakoan inork ez zituan aintzakotzat hartzen. Neu ere ez nintzan bere itxuraz jabetu behin ustegabea ikusi nituen arte. Errukia eta bertsotarako gogo sortarazi zidaten:

Hezurak konta leizke,

ilajeak zatar,
errukarriak daude:
ez lepo ta ez papar;
begi larri larriak:
zikin eta makar.
Norbait gobernatutzen
haste ez bada azkar,
hezurzale badira
jango dute alkar.

Lehengoan bat errukiz
askatuta utzi,
Etxaburu aldera
laisterka ihesi;
ibiltzen ez zekian,
hura zeinek hezi?
Isatsa altxatuta
ipurdia jetxi,
zer egingo ote zun da
kaka gutxi-gutxi.

Ez zuten haiek luzaro iraungo. Gero, Olegi-berrira etorrita, astoa eta erbizakur haundi bat egoten ziran ikuiluan, hauek hobeto gobernatuak. Hala zan, Joxemari anaia hor ibiltzen zan soziedadean afariak prestatu etabar. Hango hondar sobranteak etxera ekartzen zituan, eta ikuiluko bientzat ailegatzen zan zerbait. Anaia motoan ibiltzen zalako, gure baseritik bostehun bat metrotara dagoen Peatzeta baserrira inguratuz gero moto-hotsera igartzen zioten bera zana. Orduan astoa arrantzaka eta zakurra zaunkaka hasten zitzaizkigun. Joxemari astoa eta zakurrari beren partizioak egiten ari zitzairen gau horietako batean bertso hauek pasatu nituan burutik:

Sukaldaritzan guztiz
tajuz eta samur,
nahi duan danak ez du
horrenbeste adur,
etxerako pardela
ogi eta hezur,
ikuiluan badauka
nork egina agur,
adiskide bi dauzka:
Asto eta Zakur.

Joxemarik motoan
Benta-berrirantza
iristean, hotsera
hartzeiote antza;
beregandik hartzeko
duten esperantza
dela medio gero
nolako gorantzal:
zakurrak zaunka eta
astoak arrantza.

Benta-berri gure etxea eta Peatzeta tartean dagoena da.

Etorri ziran soldaduskako garaiak, pasatu ere bai, eta urteak joan ahala (joan edo geratu) sasoiu edo edadean sartu giñanean, sendiak beti gauza bat izaten genduan elkarrekin: «Olegi». Etxe zaharra zan oso, oso zaharra ere,

auskalo noiz egiña (Zaldibian zaharrena zala esan ere izan dute), aholez eta zurez aurrena, gero berrikuntzaren bat izan eta ohol tarteak argamasan bete zizkioten. Guk ezagutu genduanerako, ordea, berau ere nahiko zaharkituak zeduzkan. Berritu baten premian zegoan, bada, eta askotan egoten giñan pentsatzen ea nola .egin zitekeen hori.

Baina betikoa: batetik dirua nondik sortuko eta bestetik zeukan lan txarra, konpondu nahi izanez gero. Izan ere oinarriak edo zimenduak batere harturik gabe zegoan, bere garaian ohol batzuren gainean montatuta. Hori asko ez bazan, geroago ikuilua egitekotan azpiko lurra kendu zioten eta oinarri gutxiak airean bezela gelditu zitzaizkion. Lan neketsua ikusten genion, beraz, ez bait zan artean pistarik, gurdibidea baizik ez.

Nola konpondu eztabaidatzen ari giñala, azkenean, erabakia hartu genduan: hura konpontzen hasia baino hobe izango genduala hura zegoenean utzi eta beste bideren bat hartzea. Gainera soldaduskatik etorri eta ondorenean, hogeitabost urterekin, hasi nintzan Beasaingo C.A.F. fabrikari lehenengo aldiz lanean. Baina ez nuen jarraitu, hiru urte bakarrik. Orduan ere buzan, 1961ean, lan eskasia edo krisia eta alde batetik irabazi motza eta bestetik 5.000 duroko eskeintza egin ziguten ateratzeagatik, ba atera egin nintzan: urte osoa lanean pasa eta ez nuan hainbeste irabazten.

Etxe berria egitea ere orduantxe gertatu zan. Familia bildu eta hala erabaki zalako. Fabrikatik atera eta beste lau urte egin nituan etxean. Garai hartan tokatu zan aitaren heriotza ere, 1964ko Urriaren hogeitabostean.

Senide guztiak bere martxan sartutatsu, batzuek ezkondu, besteak lanean... etxean ama eta biok geratu giñan bakar bakarrik. Ganadu mordoxka artean (sei edo zazpi behi beren txahalekin) eta ez genduan zer eginik hainbesterekin, eta etxe berriaren gastuei erantzun egin behar, nahiz lanik haundiena geuk moldatu genduan. Terreno sail batzuek saldu eta jasotako diru pixkatez ordaindu genitun zorrak.

Hala, berriro lan bila nenbela irakurri nuan, periodikuan, Beasaingo fabrika haundirako deia. Presentatu, eta harrez geroztik bertan jarraitzen det, egunero joanez. Makina bat arrisku pasea naiz hara joan etorrian, bidea ere, lehen behintzat, halakoa eta...

Iristen geranean
Ordizi ondora
hartu beharra dago
patxadan denbora
nola pasa pentsatzen
zulotik zulora:
zuloak erdian ta
zuloak albora,
ia ezer ez dago
zulotik kanpora.

Bete izan dituzte
noizik bakoitzean
brea mordo batekin
tontorka antzean,
nola txingorri muino
sarri belatzean,
baina egun bateko
euriak jotzean,
denak garbitzen ditu
denbora motzean.

Baztarreko kunetak
urbide jakinak,
aspaldi garbitu ez
ta daude zikinak,
eta urak dabiltza
hortik aldeginak

autoak pasatzean
ai zer zipriztinak!
Garbitzen dizkigute
belarri iskinak.

Gauzak dabiltzelako
dabiltzen moduan,
horra azkenerako
nork pagatzen duan.
Egunero hor gabiltz
etorri ta juan,
noiz enterrako geran
batxe ta zuluana;
zalaparta ederrak
jo ditut lehengoan.

Lehengo egun batean
nere «mobietak»
hartu dizkit gainetik
botatzeko setak
izutu zualako
baten bizikletak.
Aurpegiz lur jo eta
haiek urraketak!
Ez pentsatu direnik
gero berriketak.

Bizikletazale bat
ez argi ta ez kristo,
eskarmentu gabea,
naiz pasea kinto,
holaxe ibiltzen da
zenbait txoropito.
Ikutu egin nuan,
jo banuan kito!,
ta aurreko potzuan
sartu balitz ito.

Haiek ibilerak!

Hala, fabrikan lana egin, etxeakoak erabat utzi gabe, eta era berdin samarrean jarraitu nuan etxe berrira etorri giñan bitartean. 1968an jeitsi giñan, eta han bizi naiz geroztik.

Bertsotan lagun artean askotan aritua, lehenengoz plazaratzea Zaldibin gertatu zitzaidan. Garai haietan (1962-63a) luistarren kofradia delakoa izaten zan herri guztitan, bertako gaztez osatua, neskek Mariaren alabena bezela, eta urtero ospatzen zan festa, Ekainaren 21ean. Ordukoa izan nuan lehendabizi jendearen aurrean kantatzeko aukera.

Berehala Legorretan, Lazkao-Txikirekin, Jesus Eskisabelek («Jainkoa», ezizenez) bazkari baterako deiturik. Bazkalondoan kantatuko gendualakoan eta hark, berriz, beste gauza bat eduki prestatuta: han balkoi bat bada bere tabernako ate gainean, eta balkoiaren azpian mahai bat jarri zuten. Nik uste izan nuan soinujolearentzat izango zala, baina bai zera! Halako batean non esaten didan Jesusek:

-Beno, Patxi, bertso saio bat egin beharko dezue Joxe Migelek (Lazkao-Txiki) eta biok, jendea etorri dek eta horixe entzun zai zeudek.

Hura dardaizoa eta ikara sentitu nituenak. Gaztetan, batetik plazan kantatzeko ohiturarik ez eta bestetik nerezko nerbio hori... oso nerbio jarri nintzan, baina aritu egin behar eta aritu giñan. Lazkao-Txiki ondo eta ni egin ahalean. Hola joan zan. Bazkalondokoa gero, eta azkenik, iluntzean, plazan berriro. Ordurako hobeto ere bai eta lasaixeago aritu nintzan. Ez zitzaidan berehala pasa, halare, hango estuasunaren ikara.

Ni Jesus horren mahaian saio asko egiña nintzan eta berak halaxe zionez, ni bertsolari haundia nintzan. Tarteka bat edo beste itxurazkoak moldatuko nituan baina, jeneralean ez det uste oso ondo arituko nintzanik. Nik badakit gauza horiek nola diran. Jesusek, ordea, ez zuan ni txapelketara eraman gabeko onik. Neurez ni lehenago joango nintzan, 62an edo 64ean behintzat seguru, baina orduan aitazana hil berria. Beasainen izan zan kanporaketaren saioa. Aita oso gaizki (laster hilko zen), berari lagundu behar eta orduan ez zegoan joaterik, aurreagoko lanik bagendualako.

Gero, 66an, Goierri bailarako txapelketa nagusirako kanporaketa Ordizian jokatu zan. Santa Ana egunean (bertako patroia, Uztailaren 26an). Hantxe hasi nintzan, aurrenekoz, txapelketako saiotan parte hartzen. Zaldibitik bagiñan lau, elkar hobeto animatzearren joanak.

Poliki aritu nintzala uste det. Kartzelako gaiari botatako hiru bertsoetatik bat gogoratzen det: basobide batean noala arbola batetik zintzilika ikusitako urkatuari kantatzeko:

Ustekabean inguratu naiz
bainan damaturik nago,
ez nintzan honuntz etorriko're
jakin banuen lehenago.
Zuk egin dezu egitekoa,
ez zenezake gehiago,
gorputza hemen utzi dezu ta
arima non ote dago?

Hau pasatu ondoren izan nituan deiak, bertso saiotarako. Nik, egia esan, ez nuan plazatan bertsoetan aritzeko gogo haundirik baina Jesus horrek ez zuan etsitzen eta ni txapelketara joan nendin hainbesteko enpeinoa hartu zuenez ba... hasi egin nintzan.

Halare gero bertan behera utzi nuan. Ez zan izaten lan haundirik eta, nahiz dei bat edo beste beti jaso handik edo hemendik, besteren bat bilatzeko esanez ematen nien nik ezetza. Urte batzutan bai, beinipein, Goierriko bertsolariak bilerak egiten hasi ginaneraino. Bilera hauei hasera Eusebio Igartzabalek eman zien, bere lagun batzurekin.

Egun batez, Ordizian, Juan Mari Lekuona genduan hizlari, eta berak emandako aholkuei esker (edo kulpaz), bada, berriro aurrera, berriro bidean. Gabirin antolatu zuten aurrenekoa. Goiburu ere han zan. Orduan egin genduala, uste det, biok saio berean bertsoetan.

Hurrengoa Ordizian antolatu zuten. Etxetik ateratakoan eraman nuen zerbaiten intentzioa. Ordizin Goibururekin topo eta galdetu nion:

-Ze asmotan etorri haiz?

-Hementxe, bertso batzuk adituko ote dituan edo.

-Ez al gaituk joango gu ere?

-Hori egingo ote diagu bada?

Nolabait ere eman genduan izena eta, gauzak nola diran, berak irabazi, Goiburuk, alajaina!

Urte berean hasi ziran Zepai saria antolatzen Idiazabal. Hura ere Goiburuk eraman zuan aurrenekoz. Bizkorra agertu zitzaigun oso, idiazabaldar hau. Dana berak jaso behar zuala!

Azkenean txapelketa nagusian hartu genduan parte. 1980. urtekoan taldean sartu gintuzten eta hor ibili giñan, Arrasaten eta Gernikan egin genituelarik saioak.

Bolada batean herriz herri bastante ibili nintzan, azkenerako saioak bakandu baditut ere.

Lazkao-Txiki bertso saio askotako laguna izan det nik. Aspaldidanik, baina are sarriagotan Zaldibiko Gurutzeta baserria erosi (beste lagun batekin sozio) eta geure herriratu zanez geroztik. Orduan ere, etxea (baserria) erosi eta lehenengo eginkizuna bera txukuntzea izan zuan Lazkao-Txiki horrek. Horretarako igeltseroa behar eta lagun bat aurkitu ondoren bertsotan tokatu giñan hirurok. Nik igeltseroa ezagutzen nuan eta Lazkaori abisatu nahi izan nion, laguna bait nuen:

Gaur edo bihar sartzen bada hau
Gurutzetako partian,
hamaika ordu galdu behar du
bere ta zuen kaltian;
endemas ere kobrantzaren bat
izaten badu tartian,
ez daukazue hau ikusirik
haiek gastatu ardan.

Ez zidan kasu haundirik egin baina ez ziran gaizki konpondu.

Lana aittatu dedanez eta Lazkao-Txiki ere bai, 1978. urte inguruko egun bat datorkit gogora. Lizarragako Juanmari (Etxeberria) zegoan alkate. Artean ikastola eta beste zenbait herri-ekintzetarako dirua behar izaten zan eta lanak danon bizkar gertatzen. Alkateak Artxabalgo pinudia auzolanean garbitzea proposatu zion herriari. Baita herriak gogotik erantzun ere.

Hala, garbizio horiek egin dira eta parte hartu zuten guztientzat bazkaria jarri zuan udaletxeak. Olakosain, mendira bidean dagoen gain batean, egin zan bazkari hori. Garai batean baziran han pago bikainak.

Dana dala, kanpo librean eta alkateak berak serbituta genduan, gainera. Soinujole eta guzti. Bertsotan Lazkao-Txiki eta biok. Saio luzeak egin genituan, horrelakotan ohizkoa bezela, gai asko ikutuz. Hasiera, jakina, formal:

Lazkao-Txikik:

Hara zertara alkartu gaitun
maitasunaren indarrak,
moztuak dira beheko pinudi,
horko sasi eta larrak;
horregatikan mila zorion
hemengo gazte ta zaharrak,
eta hitz batez akabatzeke
gaur gora zaldibitarrak!

Nik:

Talde guzti hau hor ibili dek
lanari gogor heldurik,
ordu batzuek badizkiagu
hor izarditan galdurik,
ta bazkari bat anaitasunez
alkarregana bildurik,

nik ez zedukat hor egindako
nekeak egin damurik.

Baina ondo bazkaldutakoan bertsolariak pikardia ere berea du, eta Lazkao-Txiki tartean denean, ezinbestekoa (endemas ere). Bazan han, gure artean, lanerako matxeteak eta zorrozten aritutako jubilatuko bat. Ezin burutu ahal izango zan han egindako lana, hura izan ez balitz. Guk, ordea, azkenerako, zorroztaile horren beraren erramintak aipatzera jo genduan. Kasu honetan errua neurea izango zan, neuk eman bait nion saioari hasera:

Nik: Zahartu da, baina gizalegean,
da herriaren laguna,
aitortu behar mesede asko
gurí honek egin diguna.
Badu matxete bat, gerrí-mea
eta burua-astuna;
zorrozterikan ez dagoena,
altzairurikan ez duna.

Lazkao-Txikik: Egia al da, aizu Arrese,
lehen honek esandakoa?
Erdi-ipurdi esan du baina
aitortu digu nahikoa:
badaukazula, zuk, matxete bat
burua amustutakoa,
zoritzarreko labe beroak
tenplea kendutakoa.

Nik: Gauza guztiak bukatzen dira
plazuan edo epean.
erramintak'e gastatzen dira
lanean edo nekean.
Matxete hori zuk ere hobe
dezu uztea pakean,
kostako zaizu berriz ipintzen
lehenago zendun tenplean.

Lazkao-Txikik: Hemen guztiek ere ezina,
betirako ez sortu-ta;
neu ere nago gauza horrekin
nahiko beldurra hartuta;
honek esan du matxete hori
dagola punta moztuta,
ez al daukazu tenplatzerikan
labe berrian sartuta?

Batera eta besterako ibilera horietan kontu kontari eta bertso kantuan zerbait trebatu ginen. Batzutan gezurretan, Ordizian bezela; gezur bat botatzeko jarri ziguten gaia, eta nik:

Astoaren gainean
joan naiz ilargira,
jendea egona da
mundutik begira,
eta oso dotore
egina det jira:
babarrunak bildutzen

orain ari dira. (1)

Pekaturik gabekoak ziran hau eta honen antzekoak, berehala igartzen bait da zer dan, eta horiek gezur pattalak dira. Egiak aldiz... Bazkalondo batean hala kantatu nion pakerik ematen ez zigun bati:

Behin jaio hintzalako
aula ta eroa
geroztik ematen dek
nahiko endreroa,
porlanik gabe egin-
dako morteroa,
jale garbia eta
alper enteroa.

Zenbait punturi ere erantzun izan diogu.

Zahartzen ari gera,
ez al da egia?

(1) Ordizian, 1974an.

Nik:

Nik ere hortan badet
nahiko komeria:
buruko illeak'e
joan zaizkit ia,
ta len bezin argia
ez daukat begia.

Badira, halare, zeharka ibili gabe eta bestela litekeenik ere pentsatu gabe galdetzen dutenak, hala behin, gaia bezela, Lazkaon:

« -Zer dago, Patxi, burusoil horren azpian?».

Eta horrela erantzun nuen nik:

Estalgarriak galdu ziran da
buru azalak zuritu,
kopeta hazi eta zimurtu,
edertasunak urritu,
honen itxura eskasarekin
behar kantuan aritu,
umore on hau hor sortzen da ta
ez al du nahiko meritu?

Hau da galdera: zer moduz dago
burusoil horren azpia?
Hartu nahi nuke behar bezela
erantzuteko astia;
hauxe da nere gailurra eta
ilargi ta eguzkia,
naizen moduan beragatik da
nere ízate guztia.

Soilune horren azpian zer dan
egiten dezu galdera,
hor daude muinak ta oroimena,
ta hor dago ezaguera;
urte hauetan bista beheraka,
belarrietan sordera,
zerbait guztiak galduko zuten
ilearekin batera. (2)

Gaia jarrita askotan aritu gera, gaur egun, izan ere, hauxe bait da bertsoan egiteko erarik ohizkoena. Hosto guztiak erori zaizkion zuhaitza nuen gaia bi bertso kantatzeko. Hemen bertso haiek:

Hara, zuhaitza begira nago
zu ikusirik horrela,
lehen hosto berde zenuen hura
bihurtu zaizu orbela.
Seinale hau da izaki danak
bere aldi bat duela
eta aditzera ematen dezu
udazkena datorrela.

Uda-azkena hemen degula
aitatu dedan neurrian,
hostoz jantzia zinan arbola
orain hor burugorrian,
baina berriro zure hostotza
sortu leike indarrarian,
orain galdutzen zaizun ordezkok
datorren udaberrian. (3)

(2) 1990ean.

(3) Idiazabalén, 1974an.

Beste batean, berriz, denbora luze batean famelirik gabe egon eta lehendabiziko semea jaio zaigunean, atzeratua dela jakin degula, jarri zidaten gaia.

Hara, haurtxo txikia,
begira zugana,
zu ziñan aspaldian
desio nuana,
ta bizitza hartuaz
gaur zatoz gugana,
baina ez dakit oso
ote zauden dana.
Zer eingo da?, hartu behar
Jainkoak emana.

Maitasunez sortuta
banuen hurrean,
bizitza pasa ustez
goxoki lurrean,
zure zai egon gera
era jatorrean

ta orain ikusirik
hain modu txamean,
haurtxo, negarrez nago
zerorren aurrean.

Seme zure doaiak
gaizki dabiltzela,
ta nik ez izanikan
hain bihotz txepela,
mongoliko ikusirik
aurrean honela,
bihotzetikan mina
sentitzen detela,
baina maitatzen zaitut
sano bat bezela. (4)

(4) Idiazabalen.

Salamancako andregaiia nuen beste gai batean. Euskal Herria libre zegoela eta Lehendakariaren bandoa zabaldu dute: ez dela Euskal Herria euskeraz ez dakienik sartuko edo biziko.

Bakarrik pasatu det
urte sail galanta,
orain arte, nolabait,
izan det aguanta,
andregaiian herria
dala Salamanca,
motibo horrekin orain
behar al det kanta?

Aitortu behar nere
pozaren neurria,
itxaropen bat neukan
berek jarria;
neskatx jatorra zala
gutziz, igarria,
ez al nezake egin
euskaldun berria?

Eta nor naizen ere
esango det bertan,
nola hasi nintzaden
hortarako setan,
zerbait adierazia
nion hitz batetan:
aurrera euskeraz behar
hitz egitekotan.

Andre hori hartzea
ez nuke kaltean,
mutil-zahar bizirika
hainbeste urtean,
osasun onean da

ahal bada pakean,
Euskadi askatzeko
guztion artean. (5)

(5) Lazkaon, 1985ean.

Diktadoreak gogor
lotu zun herria,
hau zen mingarria,
ate denei harturik
giltzazko neurria
berak bizi zuela
holako tirria
berehala sortu zen
borroka berria,
leherturik herriaren
aske egarria.

Gu hazi ahala, ez dakit ez ote zan geroz eta estuagotzen ari. Bertsolariok batera edo bestera genbiltzala somatzen genduan geure buru gainean ertzaren zorroztasuna baizik ikusten ez zitzaion ezpata gaiztoa.

Geureari eusteko premia nabarmena zan eta ahal zala saiatu giñan gogotik hortan egokitutako leku eta aukera guztitan. Baina ez zan erreza. Oholtza gainean eta mikrofono aurrean kantatzen denean, hortarakoxe ziranez, gure bertsoak urrutiko eta gertuko belarri askotara joan ohi ziran eta... ez izan danak zintzoak! Batzuk, behintzat, mingaina zorrotz asko astindu zuten eta gutako makina bati gogor sufriarazi ere bai. Ez zan giro! Gu han, denen aurrean, hitzez esatera inor atrebitzen ez ziranak bertsotan boteaz.

Lazkao-Txikik esaten du ederki, nola behin Getarin bertsotan zirala hasi aurretik bertako agintariren bat (goardazibilen buru egiten zuena edo) etorri zitzaion zer kantatu behar zuten galdetuz, erderaz. Ez zekitela (pentsa haiek zenbateraino ezagutzen zuten bertsolaritza) eta orduan zertarako joan ziran, galdetuz aldegin omen zuela.

Eskerrak gaizto guztiak euskeraz ez zekiten! Hala gertatzen zitzaigun gauza bitxia: geure euskera hau, erabiltzeagatik batzutan galtzen gintuana, bera bihurtzen zitzaigun babesle, askok ulertzen ez zutelako. Bigarrenge bantaja hau sarri askotan erabili genduan.

Bolada batean, beharbada aurreraegi joanda ere bai, gu, bertsolariok gertatu giñan herriaren ahotsa. Guk salatzen bait genduan euskaldunongan ezartzen zan injustizia. Akordatzen naiz Nafarroako Areson, amurrai eta arkume, afari on bat egin ondoren bertsotan hasi eta justizia/injustizia ari ginela nota bota nuan honoko bertso hau.

Barrunbe dana trastornatzen dit
injustiziaren zamak,
lehenago ere antzeko gauzak
sarritan ditut esanak:
hadiradela gizon batzuek
amak lurrera emanak,
besteren gauzak berengandu ta
goseak hiltzen diranak.

Hurrengo hauek Zaldibiko Guraso Elkartearen kantatuak dira. Oraingoan bertso-laguna Azpillaga nuan. Aldaketa politikoaren etorrera edo handik laster zan. Orduan ere, oraintxe bezala, saltsa dexenteak eta argia nahi bezain erraz ikusten ez. Azpillaga ere bastante definitua egongo zan ordurako eta kritikarako ere gogo pixkaren bat bai igoal. Marxismoa zala eta ez zala... horrela aritu giñan. Nik, behintzat, halako batean hauxe kantatu nuan:

Gure gurdia lohitan daukagu
kurpilez eta pertikaz,
bere gaineko kargamentua
beterik dago tortikaz,
ez dakizkigun zenbait gauza guk
behar genituzke ikas:
ez da demokrazirik sortuko
batak bestea kritikaz.

Azpillagak abertzaleon arteko haserreak aipatu zituan gero. Nik honela esan nion:

Nik ere triste pasatzen ditut
egunak eta arratsak,
ikusten ditut halako sarri
hain jokabide narratsak,
hainbat landare igar-zorian
daduzka gure baratzak,
baina ez apura, pixka banaka
garbituko dira saltsak.

Oraindik ere badago premia, baina tira!

Jarraian honela bukatu zuen Azpillagak:

Zer kristotako ukatzen dute
Euskadi gurea da ta.

Nik:

Gure herria horrexegatik
dago betea afanez,
ta ez det uste eskatzen dana
danikan hain bide txarrez.
Hor daduzkagu Juan Carlos eta
Fraga, ta berdin, Suarez,
kontua franko badute, baina
ematekorik ezer ez.

Gero Azpillagak:

ni ez nintzake inora joango
euskera galdutzekotan.

Nere erantzuna hauxe izan zan:

Euskera gabe nola osatu
Euskadiren familia,
ordun Euskadi deitzeak ere
ez luke merezi ia.
Baina horrekin lotu beharreko
gauza gehio're badia:
Euskadi bera bezin loturik
dagoen langileria.

Egoera latza zan, inondik ere. Eta danontzat, gutxi gora behera. Ezer gabe libratu zanik ez ziran askorik izango. Bertsolariongan ere iritsi zen zigorra, eta txandaka edo, eduki genduan horien atzaparrak ezagutzeko aukera. Lazkao-Txikik ere halaxe zioen behin:

Sekula ez det ikusi
zibilik etxean,
neu ere jarritzen nauk
halako letxean,
bestela izanarren
dotore antxean,
umil gelditzen dituk
fusila kentzean.

Eta Goibururi gaia halakoa jarri zioten: «Tiroz jo duten goardazibila kalean egonda denbora luzez inork kasorik egin gabe». Holaxe zioen, Goiburuk:

Jende hoi ez zan lehen ere izango
mesede egin zalea,
gehiagok ere ikasi dute
zuzen tiratzen balea;
inork altxatu nahi ez bazitun
hola botata kalea,
jendeak zenbat maite dituen
hortxe dago seinalea.

Neri ere tokatu zitzaidan horien eskutik pasatzea. Ondoren geratu zitzaidan, halare, bertso batzuk jartzeko gogoia (1974):

Joan den Azilleko
hogeitabatean,
hura danbor soinua
etxeko atean!
Amak ireki zuen
ea zein ote han
polizi armatuak
etxea betean,
errez domina naute
guztien artean.

Hartu ta ekar ninduten
atari aldera,
han nere zai utzita
zen Land-Roberrera;
sartu nintzen garaian
bere barrenera,
han beste hiru lagun
triste buruz behera,
nere kasa hau nion:
«konponduak gera».

Hala gero guk hartu
Genuen ertera
beldurra geneukagun
borrero artera,
Ordizia utzita

Tolosa partera,
lehenbiziko sarrera
guztiok batera,
gau-pasa egiteko
toki politera!

Gero bana gintuzten
alderdi banata,
prestaturik zeukaten
neretzako planta,
txerritegi antzeko
zirkilu galanta,
han lotu ninduten da
beharko aguanta,
handik entzuten nuen
denen marru kanta.

Eskuak griletekin
loturik atzean,
batak begi ondoan,
bestek okotzean,
nola gibelean da
berdin saihetsean
galderen erantzuna
bazen ezetzean;
hola hartu ninduten
tortura latzean.

Herioan indarrak
ahuldu ta eskas,
beldurraren ikaraz
hortzak ere «kas-kas»,
ia hasia nengon
nahi ta ezin aiezkaz;
aska nindutenean
eskuz eta hankaz,
zutikan jaikitzeke
neu ez nintzen kapaz.

Hontan utzi zidaten
eta erretira
lehenagoko zirkilu
edo txerriteira
ta artalde berria
gure barrutira
hartu zituzten joka,
iletatik tira,
hura istilu hotsa
ni nengon tokira!

Zaldibi, Amezketa
eta Ernialde,
han agertu zitzaidan
makina bat jende: (1)
«Patxi, zer egiten dek?»

denek neri galde.
«Bainua auspez eta
egurra debalde;
hoiek denak probatu
eta hemen gaude».

(1) Nirekin preso zeudenak ziran.

Ezin zen, halare, etsi. Urteak etorri urteak joan, euskaldunen egoera ez bait zen askorik aldatzen. Bestelakorik ezean, guk herriari eskatu izan diogu iraupenerako indarra. Eta urte bukaera bakoitzean eskaera berdina:

Joan den urte hau ez da izandu
gozoa eta txukuna,
denok dakigun hainbat arrasto
tristeak utzi dituna;
Urteberria eskatzen dizut
herrian askatasuna,
hori ez bada, berriz, burrukan
jarraitzeko osasuna. (1)

Zein bide ez eskeini itxaropenari eustearren!:

Hainbeste aldi pasa ditugu
tristeak eta ilunak,
hainbeste urte gure artean
ez dira izan bigunak;
bildu gaitezen elkarrena ta
alai gaitezen euskaldunak,
badatoz eta ustez betiko
galduta zeuden egunak. (1)

Zenbaitek hartu zuan bide gogorragorik, damutzeko betarik ematen ez duana:

(1) Ordizian, 1984an.

Organizatu eta
elkarrengana bil
zenbait euskal mutil,
fazistei utzi gabe
patxadan ta trankil,
itxas ur haundietan
nahiz ta behar murgil,
ikusiagatikan
heriotza hurbil,
hots ozen bat eginik:
askatu ala hill!

Gauza gogorra dela
utzi nahi dut garbi,
jarri zaitetz adi
etsaiak uxatu ta

lasaitzen Euskadi;
bukatzen ez den gerra
hasia aspaldi,
gudariz bete dira
hainbeste hilobi,
Zaldibian ditugu
hoietakoak bi.

Bat Nikolas Mendizabal «Zaharra» zan, Itsason erahil zutena Ibarako Sebas Goikoetxearekin batera, 1977an; bestea Anjelmari Galarraga, «Pototo», Donostiako Miraconchan, 1986an. Toki askotan gertatu da, badakit, burruka latz baten ondorenak diralako, baina hauenak Zaldibira ekarri zuten pena ez dan arren isiltzekoa, hitzez adieraztezina da: beren hileta-argazkiak ikustea baizik ez dago. Oso gutxitan izango zan, inoiz ez, hainbeste jende gure herrian eta sentimendu horretxen indarrak atertu zigun etenik gabe zerigun negarra. Hala amaitu nuan bertso sorta hau:

Goardazibilen tiroz
Itsasoan hila,
hura zan mutila,
bihotz haundiko seme,
jator ta umila,
hontan bukatu zuen
hark bere gerrila;
espirituz piztean
utzi zun fusila
ta izar baten gisan
dizdizka dabila.

Eta «Pototo» zeuri
berdin nere aintza
findasunen printza,
Donostian isurtzen
odol nahasiz intza,
baliotsua zure
aita-amen egintza,
merituz amaitu zen
zure gudaritza:
«Zaharra»-rekin batera
bizirik zabilta. (2)

(2) Zaldibian, 1987an.

Goiburu eta biok egin ditugun saioak ez dira gutxi. Gogoratu ezin ahala. Lagunak izateak hortara garamatza. Batek daki zenbait erromeritan izanak geran, zenbatetan gozatu eta zenbat jende alaitu degun. Oraingo gazteak ez dakit jakingo duan gure garaiko festak nolakoak ziran. Behin, batzuk hala nahi eta, esplikatu genduan, Goiburuk eta biok:

Goiburuk:

Lehengo mendiko erromeriak
ziran ugari antxian,
egunargitan dantzatu eta
iluntzerako etxian.
Orain gauean dantzatzen dira,
gehienak leku itxian,
gauzak ederki aldatzen dira

hemen denbora gutxian.

Nik: Erromeriak nola ziraden
garai batean gazterik,
esanda ere zenbait pertsonak
ez daduka sinisterik.
Garai harretan ez zan izaten,
ez, misioak besterik,
neskatxak ez zuten pentsatutzen
mutilei heltzen uzterik.

Goiburuk: Lehen erromeri politak baina
ba zegoen nahiko lana,
galerazita nola zegoen
dantza heldurako plana.
Kastigu hori guztia gure
gazte denboran izana,
orain ederki libratu zaigu
lehenago pekatu zana.

Nik: Ez ziran metro askorik ere
gure etxetik abiran,
Bentaberria deitzen zitzaion
etxe koxkor baten jiran;
soinujolea, neska ta mutil,
komeni zitzaien mugiran,
garai hartan'e, nere iritziz,
bapo dibertitzen ziran.

Goiburuk: Honek bereak esan ditu ta
nik esan behar neriak,
bakoitzak nola pentsatzen duan
hortxe daude komeriak;
eder askoak izanagatik
garai hartako erromeriak,
oso txukunak ez ziran izan
gu biontzako periak.

Nik: Ni bildurtuta nenguan baina,
honek garbi adierazi,
honta ezkerro dana esatea
ere ez al du merezi?
Ez eginarren galdetu eta
hainbeste menosprezi,
oraindik ere salgai gaude gu
nahi bagaituzte erosi.

Goiburuk: Hau esan gabe hementxe nago
aulkiraino ezin junik,
ez gero pentsa Patxi zahar honek
gaur gezurra esan dunik;
inork falta badu mutilizahar bat
haundi samar da astunik,
dion bezela salgai gera gu
baldin bada erantzunik.

Nik: Bi tituluak bazitun honek:
artzaia eta hargina,
garai batean Urbia aldean
akzio politak egin,
hutsa litzake edadez ere
diferentziko bagina,
nai zaharra deitzen dik honek baina
bera ere urtez berdina. (1)

Azkeneko besteenganako esplikazioa ia bihurtu zan elkarren aurkakoa. Ez apuratu, halare, lagunak gera eta.

(1) Lazkaon, 1989an.

Ez det uste Goierriko ohitura denik bakarrik, baina hemen bada herri bakoitzeko biztanleak animalia baten edo beste zerbaiten izenez ezagutzen diralako. Hala dira Beasaindarrak «bareak», Ordiziarrek «azak», Atandarrak «otsoak», etabar. Idiazabaldarrak «axeriak», Itsasondokoak «ijitoak» eta Zaldibitarrek, gu, alegia, «arkakosoak». Topo egin degu hirurok Lazkaoko plazan: Zeberio (ijitoa), Goiburu (axeria) eta ni.

Goiburuk: Hizketan hasitzeko
ez nago dudazko,
pasea hainbeste oilatoki
eta mendi kasko,
jan ere bai zenbait oilo,
oilanda ta oilasko,
azaria bizi da
gaur ederki asko.

Zeberio: Azariak gaur digu
mundu lada nahastu,
eskupeta bildurrez
hortxe dabil estu;
desinfektanteekin
hau hor justu justu,
ta ijitoak, berriz,
inbiririk ez du.

Nik: Garbi aitortuko det
nor naizen gaurkuan,
da zer egiten dedan
nabilen lekuan,
azarian lepoan da
ijiton kolkuan,
aspaldian odolez
nabil ni nahikoan.

Goiburuk: Hori egia zanik
nik, neuk, ez det uste,
holakoak zenbaitek
esaten dituzte;
azariak ez dauka
ez hainbeste peste,
ez diguzu edango

nahi dezun hainbeste.

Zeberioak:

Ijitoak badauzka
mila irabazi,
lapurretan'e sarri
ohi gerade hasi,
azaria hemen det
arkakoso ta guzi,
salgai daduzkat biak
nahi'itunak erosi.

Nik:

Biak manejatuak
dotore antzian,
azariakin gorde
belarri atzian;
ijitoa jartzen det
amorru bizian,
ta sasi tartera ni
golpe tiratzian.

Goiburuk:

Jituak kantatu du
itxura prestuan,
nola honek bestelako
hitzikan ez duan;
gu edukiarren honek
saltzeko asmuan,
jituakin zeinek hasi
nahi du tratuan.

Zebereriok:

Azaria harrapa det
oso osorikan,
ez dakit zegon libre
edo gaixorikan;
inork ez dit erosten
arkakosorikan,
beraz honi ez egin
zuek kasorikan.

Nik:

Baina bizi naizela
gauza nabarmena,
egin zuek oilotan
ahal zenzaketena,
egon zuek gurí-gurí
ta ahal dan lerdeneana,
gero txurga dezadan
odol mardulena. (1)

(1) Lazkaon, 1985ean.

Beti aitortu det Florentino eta biok oso lagunak gerana baina, batzutan, al dakit nik ze burutazio?, ni zirikatzeari ekiten dio. Gure egoeraren berri hemengo jende askok badaki, aberatsak bagina oso bestelako bizimodua gozatuko gendukeela, hori jakiten zaila den arren. Bere egoeraren berri dotore asko adierazi zuan Goiburuk, bere eritzia horrela emanez.

Bi mila pezta eskas dudala
nere jornala asteko,
dudarik gabe ez da gehiegi
mantendu eta jazteko;
izerdi patsez lan egin behar
jornal hau irabazteko,
ni, langilea, holaxe nabil
alperrak aberasteko. (1)

Eta neregatik zer esanik ez, ez gabiltza elkarren urrun, honetaz geroz halatsu beharko degu, gainera. Halare, behin, Lazkaon horrelaxe ekin zidan eta nik jarraitu:

Goiburuk: Patxi, nik hiri egiten diat
begirakune argia,
baina ez zekit hi ote haizen
ohituretan garbia.

Nik: Hik ez al dakik ni ibilia
naizela hire inguru?
Hi santu bahaiz, ni ere banauk,
motell, hi hainbat aingeru.

(1) Eibarren.

Goiburuk: Hik izan deken jokabideak
ez nauk hainbeste poztua,
hik dadukaken diru guztia
langileari ohostua.

Nik: Hori egiten asmatzen duna
ez duk uste hain makala,
hik uste al duk nonnahitik berez
hori etorritzen dala?

Goiburuk: Kaso eiteko hargatik dauzka
hainbat guardaspalda,
ta eramaten baldin badute
askozaz hobe ez al da?

Nik: Hi, nik, Goiburu, ikusitzen dit
zeinen inbidiz hagoan,
hik ere berdin, nik bezelaxe,
dirua daukak gogoan.

Goiburuk: Hire bizitzik, behar hainbeste
beharbada ez nin nahastuko,
ni bezela izan baldin bahitza
ez hitzan aberastuko.

Nik: Nik zeukat diru gainezka eta
hi hago, berriz, pobrea,
iñun partitzen nolatan hasi
nik daukadan sobrea?

Goiburuk: Langileari kendua dauka
lehenago esan dedan gisan,
alproja haundia dugu hau eta
errukirikan ez izan.

Nik: Ez uste, gero, bere gogotan
dabilenik erratua,
harrapatuko luke berak'e
balu nun harrapatua.

Goiburuk: Honek izan du, bere denboran,
harrapatutzeko txanda,
bukatutzero noa guretzat
saio hau nahikoa zan da.

Nik: Honek ez dauka behor txar batzuk
ta behi batzuak besterik,
hoiekin inoiz ez dago inor
munduan aberasterik.

Goiburuk: Nik bazeuzkiat behor txar batzuk
nola behi eta zaldi,
lapurretarik bat'e ein gabe
bizi izaten nauk handi.

Nik: Lapurretako gogo badu,
igartzen diot egitan,
agur hainbestez, aurrera ere
bizi nere inbiditan. (2)

(2) Lazkaon, 1988an, gai librean.

1986ko Irailaren 10ean Zaldibiko Inaxio Jauregi, «Xatre», ezbeharrez hil zen 33 urte zituelarik. Ondorengo egunetan bertso hauek jarri nizkion:

-1-

Pentsamentuak agertutzeko
leku emanaz hitzari
hitz eraso hau bota nahi diot
Haitzarteko harkaitzari
motibo honek lagun deioke
bertso hauen emaitzari
harkaitz bezela maitatutzen dut
gorrotoan ez naiz ari.

-2-

Pauso gaizto ta Gaintzolatikan
aurreraxego Haitzarte
larre bideko sarrera bat du

ahuntz ardientzat gaitz ate
han sartzen danik ez da itzultzen
laguntza ezik bitarte
hortan saiatuz han amaitu zen
Iñaxio-ren ízate.

-3-

Ibilaldian nembilelarik
Uharkako urbidean (1)
geldiune bat egina nuen
Haitzarteren urbilean
ezbehar beltz bat gertatu bait zen
iragan irailean
Iñaxioren irudi dena
buruan nerabilean.

-4-

Animaliak deskuida dira
urte bat baino gehigoan
aurreraka joan beheraka jeitsi
ta gora ezin igoan
aitazanari hauxe askotan
entzun izandu nioan
ardien bita sokaz jeitsi ta
ibiltzen zela mailoan.

(1) Deposituko kanalean.

-5-

Harrapalean bildotsa preso
toki itsusi xamarra
esku hutsikan sartu omen zen
ez soka ta ez amarra
mila beatzireun larogitasei
irailaren hamarra
Ordizin peri famatua zen
asteazken ilunabarra.

-6-

Iñaxio ere pesta ta peri
eguna han igaroa
eta ondoren aprobeitza nahi
ilun ertzeko aroa
bildots gaixoa salba nahi zuen
hain zen mutil aparoa
biak mailoan amildu eta
hura zen paraderoa.

-7-

Oh, heriotza!, bila joan gabe

agertutzen da bidera.
Iñaxiori egun horretan
gerta zitzaion hau bera
penagarria izan behar zun
amildutzean gainbera
bildotsa eta biak aurretik
eta harriak gainera.

-8-

Golpe haundia izan behar zun
buruan zuen zaurian
ia hilabete igaro zuen
koman edo hiltzorian
Zaldibiako pesta egunez
zazpigarrena urrian
bihotz minduen negarren jasaz
ehortzi zen hilobian.

-9-

Hiletak ere egin zizkaten
demokrazia dan gisan
lehendabiziko zeremonia
kristauan legez elizan
bere lagunak bitarte hortan
prestakuntzetan zebiltzan
plazan omen bat egin zitzaion
merezi zuen baldintzan.

-10-

Utzi zituen uso ta txori
oiloak eta oilarrak
utzi zituen aita ta ama
senide ta lagun zaharrak
maitatzen zuen izadi dena
mendiak eta ibarrak
azken agurra egin genion
eta utzi herritarrak.

Hauxe da korrika eta presaka biok egin degun lana. Oraindik bertso eta pasadizo asko utzi ditugu kontatu gabe. Hemen esan gabe geratu diranak, behar bada, gaur edo bihar liburu banatan agertu beharko ditugu. Bukatzeko, bertsoz ixten ditugu biok liburu honen atearak.

FLORENTINO GOIBURU

-1-

Patxi ta biok ginan
batera unittu
liburu bat eitteko

alkarrekin bittu
behar dan neurrietan
ezin errenditu
haundia ez da baina
lanak eman dittu.

-2-

Idazten begietan
jartzen zait gandua
bista daukatelako
onena izandua
hizkuntza berriz goiko
mendian landua
ta orain ikasteko
nahiko berandua.

-3-

Orain ibili arren
euskera batua
neri gertatutzen zait
ezin asmatua
kategoria daukat
nahiko bajatua
jakinduri gutxi ta
gorputz ajatua.

-4-

Liburuari eman
genion baietza
ez ditu ain txukunak
barrua eta ertza
zerbait esan behar da
nola ezin pentsa
barka zazute nere
euskera traketsa.

-5-

Ez da izugarria
egin degun lana
bukaeran hau da nik
pentsatzen dedana
osatutzea beste
liburutxo bana
han azaltzeko hemen
azaltzen ez dana.

PATXI IRAOLA

-1-

Histori eta bertso
liburuan para
kontsejatu gaituzte
lan horretara
eta eginalean
zedozer prepara
garbi aitortuzeko
nator kopletara
ondo errepara
ekintzen baitara
letratik letrara
bukatu da tara
nork ontzat hartuko dun
daukat ikara.

-2-

Dohaia berez dator
jaiotzen dan eran
nik ez nuke sartu nahi
kontrako gerran
nor berez sartu ginan
munduko sarreran
eskas datorren hura
beraren galeran
luze zabaleran
gutxitxo aukeran
holako tankeran
nik zer egin dedan
gutxi nedukan baina
huraxe eman.

-3-

Nork bere iritzian
nahi duenak juzka
nik egindako lanak
hemen daduzka
bikainak izateko
falta dute puska
hainbeste egiteak
neurtuak gauzka
eskaxa tajuz ta
hitza ezin ajusta
hala ere apostu
gusta edo ez gusta
hau da nere soroan
heldu dan uzta.

Patxi IRAOLA

1990-XII-4